

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 23a / 473. zenbakia

## BERTSO JAIALDIA

EGAÑA, AGIRRE, IRAZU,  
AGIRREAZALDEGI ETA LIZASO  
GAUR ZABALOTEGIN



**BERRIKETAN: GILLAMET ZAHARBERRITZAILEA/7 • PILOTA: MURUAMENDIARAZ DOMEKAN BERGARAN/10**



**NISSAN**

**TERRANO. AUKERA ASKO DAUDE. BAINA ONENA BAKARRA DA.**

**NISSAN TERRANO, ORAIN 300.000 PEZETARAINOKO BEHERAPENAREKIN. 1.803,04 €**

ESAN ZIDATEN TERRANO LEGENDA BAT ZELA ETA LIDERRA LUR OROTAKO IBILGAILUETAN. ETA NIK ZUEI ESAN BEHAR NIZUEN, BAINA PENTSATU NUEN, EZER ESAN BAINO LEHEN, PROBATU EGIN BEHAR NUELA. ORDUAN, GIDOIA ALDE BATERA UZTEA ERABAKI NUEN. EZ DAKIT ZELAN ESAN, BAINA PROBATZEN BADUZU, ULERTUKO DIDAZU.

**5** URTEKO BERMEA  
KM MUGA BARIK

**ALDIBI AUTOAK, S.A.**

Zigarrola Kalea, 1 - Tel. 943 71 20 02 - 20500 Arrasate

## ATREBENTZIAEZPADA/ Loterixia tokau da herrixan, dezimoko 10 milloi. Eta zuri tokau ezkeror?




**ANTONIA SÁNCHEZ**  
47 urte

Lehenengo eta behin salto egingo neuke, behin be ez jat ezer tokatzen-ta. Gero, zuluak tapatzeko erabiliko neukeela uste dot, eta sobrau ezkeror, ba, ikusiko neuke ze egin.



**JESUS MARI ILARDUIA**  
56 urte

Etxian laguntzeko erabiliko neuke. Alabiari laguntzeko-edo, etxian sartzeko. Neretako be zeozar gorderko neuke, andriakin batera biajeran bat egituko-edo.



**JOSE ANTONIO LAZPIUR**  
63 urte

Ze egingo neukeen? Ba, gehixenek egitten dabena. Pixka bat repartidu, eta gero biajetxoren bat-edo egingo neuke. Holako zeren bat. Gehixenek egitten dabena.



**MARTA SILVA**  
39 urte

Ba, ez dakit ze egingo neukeen. Behin be ez jat ezer tokau, eta ez dakit. Baiña bueno, lehenengo poztu egingo nitzakeela uste dot, eta gero, ba, zuluak tapatzeko erabiliko neuke.



**NEREA CERREJÓN**  
38 urte

Biaje bat egingo neuke. Bueno, gehiagorako be emoten dau, baiña hasteko hori. Eta gero, ba, pisua pagauko neuke, edo kotxe berri bat erosi... Azken baten, hobeto bizi.



**PILAR KAMIROAGA**  
70 urte

Ez dakit. Hainbeste gauza dauzkat egittek, ez dakit zertan gastauko neukeen hamar milloi horreik. Asteko, igoa, etxe berrixa erosiko neuke, baina ez dakit.

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK IBARGARAI HIRIBIDEKO ZORUA** Berri-berria eta oso polita utzi dute Ibargarai aldea. Baina kexuren bat iritsi zaigu dagoeneko. Etxeek ataripe luzea dute, eta oso ondo daude euria egin eta aterkirik izan ezean babesteko. Betiere, zoruan jarri duten baldosa labainkorrekin irrist egin eta lurrera erori aurretik baldin bada. Eskarmentatuta, ataripea zapaltzen ez duenik badago. /MONIKA BELASTEGI

## ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KULTURA /12

ZAHARRAK BERRI /14

### Trenbide zaharra

Ibargarai osteko trenbide zaharreko zubia eta pasealekua konpondu egingo ditu Udalak.

### Bertso jaialdia Zabalotegin

Gaur, egubakoitz, 22:30ean, bertso jaialdia egongo da Zabalotegin aretoan Jardunen eskutik.

### Peruko artisautza

Coprodeli GKEK antolatuta, Peruko artisautza salgai eta ikusgai domekara arte San Joxepen.

## ASTEKODATUA

# 586

### EMAKUMEEK SALATUTAKO TRATU TXARRAK

Iaz, Autonomia Erkidegoan 586 salaketa jarri ziren etxeko tratu txarretatik eta 251 sexu erasoenengatik. Hala ere, izan diren kasuen %15 eta %30 artean bakkarririk salatzen dira.

## BESTEKEKESANA

“ Agian gure eskuetatik urrun dagoen helburua izan arren, euskalduntzea gure asmoen artean dago.

Patronatuak horren alde lan egingo du. Agian unibertsitate ezberdinen arteko hitzarmen batekin lortu daiteke, azkenean, urruneko unibertsitateak euskarazko eskaintza izatea. (...) Oraingoz ez daukagu euskarazko eskaintzarik. Hori bai, inork ezin dezake eskubide hori ukatu eta gure ikasleek aukera dute azterketa euskaraz egiteko. Horrek daukan zailtasuna itzulpenarena da, baina aukera hor dago. Beste arazoa edukiena da, eskaintzen diren ikasgaien materiala, tamalez, gaztelaniaz baitago. Beraz, ikasleentzako ere zaila da azterketa euskaraz egitea, ikasitako gutzia gaztelaniaz dagoelako.

**JUAN JOSE ÁLVAREZ**  
Euskaldunon Egunkaria/01-11-16

## BERAIEKDIÑOZ/ Antonio Zabala



### Gerra modernoak

**P**asatu dira bi hilabete gerra hasieratik, eta niri iruditzen zait (agian, niri gertatu zaidalako eta, nahiko gogorra denez, besteei gertatu zaiela pentsatu nahi dudalako) momentu honetan gehienok nahiko aspertuak, nahastuak eta desinformatuak gaudela gertatzen ari denari buruz. Eta nor dugu errudun? Ba, hemen doaz egindako burutazio batzuk: Batetik, gizakia-zen izaerak. Gehienetan, lehenengo, gure arazoez arduratzen gara, gure inguruetik kanpo dauden gaiei tartea egitea kostatzen da. Eta ezaugarri hau oso ondo erabiltzen dute komunikabideek eta horien kontrola duten botereek.

Beste aldea komunikabideen arloari dagokio. Gaur egun inoiz baino komunikabide gehiago daudenean eta erabiltzen dituzten teknologia gero eta modernoagoak direnean,

informazioa oso kontrolatua eta zuzendua dago, gutxi dira irudien eta datuen jabeak. Nahi dituzten datuak eta irudiak eskaintzen dizkigute: batzuei garrantzi handia emanez (egunkarietako izenburu handiak lortuz eta telebistan minutu asko edukiaz) eta beste batzuk alderantziz, ia-ia ezkutuan ematen dira. Datu eta zenbaki ugari eman dizkigute, baina ez digute eskaini gerraren indar suntsitzailea: ikusi dugu zeruan argi batzuk batetik bestera joaten eta zarata, baina ez

dugu ikusi argi horien kalterik. Gauza bat da irudi tragiko eta odoltsuekin jokatzeko eta beste gauza oso desberdina da gerra gauza aseptiko eta monotono bihurtzea. Horrela jokatu, nahi dutenean jendearen arreta lortzen dute eta nahi dutenean gauzak ezkutatu eta kamuflatu.

Hauek dira kanpora ateratako galdera batzuk. Ez dut oso garbi bidezkoak diren, baina eztabaidarako baliagarriak izan daitezkeela uste dut.

“Gure inguruetik kanpo dauden gaiei tartea egitea kostatzen da, eta tartea egiten badiugu, denbora gutxirako da”

# Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Edu Mendibil  
**ERREDAKZIOA**  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar  
**MAKETAZIOA**  
Iñaki Iturbe

**PUBLIZITATEA**  
Mireia Larrañaga  
**KOLABORATZAILEAK**  
Luis Mari Agirre  
Maitane Arizabaleta  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberezibar

**LEGE-GORDAILUA**  
SS-50/91  
**ISSN**  
1130-6599  
**TIRADA**  
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



**GUARDIAKOFARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 23**  
MOZOS. San Pedro 4... 943 76 12 15

**ZAPATUA, 24\***  
CAMACHO. Oxirondo 4... 943 76 11 74

**DOMEKA, 25**  
CAMACHO. Oxirondo 4... 943 76 11 74

**ASTELEHENA, 26**  
PUY. Barrenkale 25... 943 76 16 87

**MARTITZENA, 27**  
GUALLAR. San Antonio 5... 943 76 11 05

**EGUAZTENA, 28**  
ESTELLA. Matxiategi 5... 943 76 19 63

**EGUBAKOITZA, 29**  
MOZOS. San Pedro 4... 943 76 12 15

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**

Anbulatorioa (txanda) ... 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa ... 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa ... 943 76 62 46

Ertzaintza ... 943 76 53 40

Osasun Etxea ... 943 76 24 40

Asepeyo ... 943 76 16 43

Pakea ... 943 76 13 49

Angiozarko medikua ... 943 78 90 27

Antzuolako medikua ... 943 76 62 23

Odol emaleak ... 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak ... 943 76 51 06

**GARRIAK**

Taxiak ... 943 76 19 50

**UDALA**

Bergarako Udaletxea ... 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea ... 943 76 62 46

Udal Artxiboa ... 943 77 91 32

Igerilekuak ... 943 76 20 51

Kultura Etxea ... 943 77 91 58

Liburutegia ... 943 77 91 62

Kiroldegia ... 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza ... 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**

Epaitegia ... 943 76 14 92

Erregistroa ... 943 76 13 15

Jardun ... 943 76 36 61

Idolaz ... 943 76 65 08

Jubilatuak Etxea. Bergara ... 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuak elk. ... 943 76 62 71

Postetxea ... 943 76 26 85

Bedelkar ... 943 76 04 68

Akulu AEK ... 943 76 05 18

Udal euskaltegia ... 943 76 44 53

Bergarako notariotza ... 943 76 10 73

**MEZAK**

<b>Santa Marina</b>	Domekak: 10:30.
Domekak:	<b>Labegarieta</b>
11:30, 13:00.	Domekak: 11:00.
Zapatuak: 19:00.	<b>San Lorentzo</b>
Lanegunak: 19:15.	Zapatuak:
<b>San Pedro</b>	20:00.
Domekak:	<b>Angiozar</b>
09:30, 12:30.	Domekak:
Zapatuak eta	11:30.
lanegunak: 19:00.	<b>Moja</b>
<b>Sierbak</b>	<b>Zaharrak</b>
Lanegunak: 19:30.	Lanegunak: 8:00.
<b>Osintxu</b>	<b>Mizpirualde</b>
Domekak: 12:30.	Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 19:00.	Zapatuak: 17:30.
<b>Elosu</b>	<b>Antzuola</b>
Domekak: 10:30.	Domekak:
<b>Ubera</b>	09:00, 11:30.
Domekak:	Zapatuak eta
10:30.	lanegunak: 19:30.
<b>San Juan</b>	<b>Uzarraga</b>
Domekak: 11:00.	Domekak: 10:00.
<b>San Prudentzio</b>	

**URTE-MEZAK**

**Santa Marina**  
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

**San Pedro**  
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

**OHARRAK**

**1934KO KINTOAK**  
1934ko kintoen bazkaria azaroaren 24an Torrekua jatetxean.

**1928AN JAIOTAKOAK**  
1928an jaiotakoen bazkaria azaroaren 24an Txarrantxa jatetxean. Izena ematea: 943 76 16 29 (Angel Azkarate).

**1944AN JAIOTAKOAK**  
1944koen afaria azaroaren 24an Azpeitxi jatetxean. Aurretik meza Santa Mariñan, 19:00etan. Izenematea Sanchez ile apaindegian.

**1957AN JAIOTAKOAK**  
1957koen urteroko ospakizuna azaroaren 24an. Izena ematea Intxorta tabernan.

**1947AN JAIOTAKOAK**  
1947koen bazkaria azaroaren 25ean Azpeitxi jatetxean. Aurretik meza San Pedron, 12:30ean.

**1950EAN JAIOTAKOAK**  
1950ekoen afaria abenduaren 1ean Tartufo jatetxean. Izena ematea Kutxan (2.000 pezeta) azaroaren 27ra arte.

**1943AN JAIOTAKOAK**  
1943koen afaria abenduaren 1ean Azpeitxi jatetxean. Izena ematea azaroaren 29ra arte 943 76 53 22 (Fernandez ohialak), 943 76 22 90 (Maher) edo 943 76 16 13 (Zubieta) zerbakietan.

**JARDUNENAGENDA**

**ASTEBUKAERAKO AISIALDIA**  
Zapatu arratsaldean txokolatada izango da Kartzelan. Domeka arratsalderako, berriz, Mazkor jaialdia iragarri dute.

**BEGIRALE LAN POLTSA**  
18 urtetik gorako begiraleen lan poltsa osatu nahi du Jardunek. Argibideak 943 76 36 61 zerbakian.

**URBANOENORDUTEGIA**

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

**GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

**GERALEKUAK:** Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN**

**Iñigo Igartua  
6. Zarautzen  
Beljikatik  
bueltan**

1991-92 denboraldian Europa mailako Superprestijio proba korritu zuen Estatuko txirrindulari bakarra izan zen Iñigo Igartua bergararra. Igartuak sei aste eman zituen Beljikan, De Bra-werekin batera entrenatzen. Zarautzeko Superprestijio proban 6. postuan sailkatu zen.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Sur-kaku"*



1. Sudur konkorra, sudur makoa.  
-Judixo askok su-kaua eukitzen dabe.
2. Sudur konkorra duen pertsona.  
-Flakosta sur-kaku batekin zeuan bebetan.

**ASTEKOFILMAK**

**'THE SCORE (UN GOLPE MAESTRO)'**

**ZUZENDARIA:** FRANK OZ. **AKTOREAK:** ROBERT DE NIRO, EDWARD NORTON, ANGELA BASSET, MARLON BRANDO.

**HARIA.** Erreparto bikaina tentsioz beteriko filma honetan. Hiru belaunalditako lapurrek bat egingo dute azken lapurreta egiteko.

**TOKIA ETA ORDUA.** Novedades aretoan. Egubakoitzean 22:30ean, zapatuan 19:30ean eta 22:30ean, domekan 19:30ean eta 22:15ean, eta astelehenean 19:30ean.

**PUNTUAZIOA:** ● ● ● ● ●

**'SPY KIDS'**

**ZUZENDARIA:** ROBERT RODRIGUEZ. **AKTOREAK:** ANTONIO BANDERAS, CARLA GUGINO, ALEXA VEGA, DARYL SABARA.

**HARIA.** El mariachi filmaren ondoren, Robert Rodriguez zuzendari mexikarra eta Antonio Banderas aktorea berriz ere elkarlanean. Atxilotuak izan diren Gregorio eta Ingrid Cortez (Banderas eta Carla Gugino) nazio-arteko espioien erreskatea bere seme-alaben esku egongo da.

**TOKIA ETA ORDUA.** Novedadesen. Zapatuan eta domekan 17:00etan.

**PUNTUAZIOA:** ● ● ● ● ●

**HAUGIROA!**

**MINIMOA** 0 °C  
Domeka, 18

**MAXIMOA** 12 °C  
Zapatua, 17

**ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)** 30,4 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 14	8 °C	5 °C	2,3 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 15	6 °C	5 °C	1,4 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 16	8 °C	4 °C	4,3 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 17	12 °C	3 °C	- l/m <sup>2</sup>
Domeka, 18	9 °C	0 °C	7,8 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 19	10 °C	7 °C	14,4 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 20	8 °C	7 °C	0,2 l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**'LA HABITACION DEL HIJO'**

**ZUZENDARIA:** BILL PLYMPTON. **AKTOREAK:** NICOLE KIDMAN, EWAN MC GREGOR, JOHN LEGUIZAMO, JIM BROADBENT.

**HARIA.** Nanni Morettik komedia jorratu izan du orain arte (*Caro diario*). Oraingo honetan, berriz, familia zorionsu bati drama bat jasatea tokatuko zaio. Urrezko Palmondoa Cannesen.

**TOKIA ETA ORDUA.** Novedades aretoan. Eguenean, hilak 29, 20:00etan.

**PUNTUAZIOA:** ● ● ● ● ●



**LASAGABASTER**

**ZURE KONFIANTZAKO DENDA.**

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

**HIRIGINTZA/** Xesarki enpresa arduratuko da lanez eta bederatzi milioi pezeta pasatxoko aurrekontua izango dute


# Trenbide zaharreko zubia konpontzeko lanak adjudikatu berri ditu Udalak

MONIKA BELASTEGI

Udalak trenbide zaharreko zubia -Ibargaraiko etxe berrien atzeko aldean dagoena- konpontzeko lanak esleitu berri ditu. Aurrekontua bederatzi milioi pezeta ingurukoa da. Besteak beste, zorua konponduko dute, baita hesi berria eta argiteria jarri ere.

Joan den asteleheneko Gobernu batzordean erabaki zuten lanak nori esleitu. Erabakiaren arabera, Xesarki enpresak konponduko du Ibargaraiko etxe berrien atzeko aldean dagoen zubia, hau da, trenbide zaharreko zubia. \*

Etxe berriak eraikitzearekin batera, Ibargaraiko inguruak ere urbanizatu egin dituzte enpresa eraikitzaileek. Urbanizazio lan horiek, baina, zubi hasieraraino heldu dira bakarrik: gune berri horri dagokion trenbide zatia konponduta dago; bide-gorria egin dute, baita baranda berria jarri ere. Eta orain, zubia konponduko du Bergarako Udalak lan horiekin aurrera jarraitzeko.



Argazkian argi ikusten da urbanizazio lanak noraino heldu diren. Udalak, orain, zubia konponduko du.

MONIKA BELASTEGI

## ZORUA, BARANDA ETA ARGITERIA BERRIA ZUBIAN

Zubia konpontzeko lanek bederatzi milioi pezetatik gorako aurrekontua izango dute. Alde batetik, zorua konpondu egingo dute; beste aldetik, baranda berria jarriko dute zubiaren bi aldeetan, baita argiteria ere. Gaur egun, zubia nahiko egoera kaskarrean dago; hainbat lagun, baranda oso baxua dela-eta, kexatu ere egin izan da Bergarako Udalean. Bestalde, argirik ez du, nahiz eta oinezko ugari erabiltzen duen pasabidea izan.

Argiteriari dagokionez, ez dituzte ohiko farolak jarriko, argi

*Konponketa lanak Xesarki enpresak egingo ditu 9 milioitik gorako aurrekontuarekin*

ahokatuak baizik. Hau da, lurrean sartu eta argia behetik gora ematen dituzten horietakoak.

Orain esleitu dituzten lanak zubia konpontzeko diren arren,

*Zorua konpondu egingo dute, baita baranda berriak eta argiteria jarri ere*

Kataibiraiko pasealeku guztia konpontzeko asmoa dagoela azaldu du Josean Etxeberria Hirigintza zinegotziak. Pasealekuan ere zorua konpondu,

*Etxeberriak esan du aurrerago Kataibiarainoko pasealekua ere konponduko dutela*

hau da, bide-gorria egin, eta argiteria jartzeko asmoa dute; farolak, kasu horretan. Horrez guztiaz gain, aurrera begirako asmoen artean, Udalak trenbi-

de zaharreko beste zubi bat konpontzeko asmoa ere baduela gehitu du Etxeberria Hirigintza zinegotziak. Saihesbideko bidegurutze azpian dagoen zubia, hain zuzen ere.

## IGERILEKUETAKO TABERNA ESLEITU DUTE

Dagoeneko esleitu du Udalak igerilekuetako taberna. Udal igerilekuetako taberna ustiatzeko lehiaketara hiru lagun aurkeztu ziren. Eta, gauzak horrela, hiru horietatik Beatriz Errastiri esleitu diote.

# Berrehun milioi pezeta banatu ditu Loteriak Bergaran

MONIKA BELASTEGI

Zapatuan, 200 milioi pezeta banatu zituen Loteriak Bergaran. Peñalba liburu dendak saldutako 27.708 zenbakiak jaso du saria. Bi serie oso izan dira, hogeitaz bikoitzi 10 milioi egokitu zaizkio.

Astean barra-barra entzun izan den gaia da Bergaran Loteriak banatu dituen berrehun milioi pezetena. 2. loteria administrazioak banatu ditu billete sari-tuak. Bi serie oso izan dira, hau da, hogeitaz bikoitzi, hamar milioikoa

bakoitza. Pilar Mugika da administrazio horretako arduraduna, eta esan duenez, zenbaki saritua, 27.708, ez da ohiko zenbakia bere administrazioan; eta horrez gain, abonaturik ere ez du. Gehitu duenez, "Madrildik astero serie solteak bidaltzen dizkigute. Joan den astean, zenbaki bereko bi serie bidali zituzten, eta horiek jaso dute saria".

## AGIAN BERGARAKO SARITURIK EZ

Pilar Mugikak gaineratu duenez, oraindik ez da inor hurbildu Peñalbara saria jaso duela esatera. "Oso posible da Bergaran

sari hori banatu ez izana. Ez da ohiko zenbakia eta zenbaki horiek nork erosten dituen badakit, gutxi gorabehera. Gainera, UNEDeko ikasleak ere etortzen dira, baita txangoan etortzen diren erretiratuak ere". Saria egokitu denez, aste honetan Loteria erostera jende ugari gerturatu dela aipatu du, eta Gabonei begira, salmentak areagotzeko bultzada ere izango dela.

Peñalbak, dagoeneko, bost sari potolo eman ditu: lau Loteriakoak eta bat Primitibokoa. Azken hori 2000ko abuztuan izan zen, eta saria, 337 milioi.



MONIKA BELASTEGI

Zenbaki sarituaren berri emateko kartela jarri du Mugikak dendako erakusleihoan.



Jolasek, kantuek eta ipuinek umeen emozio heziketa bultzatu eta umeen eta familiakoen arteko afektibitatea indartzen dute.

**HEZIKETA/** Izena emateko epea azaroaren 29an amaituko da eta plazak mugatuak dira

## Seme-alabekin euskaraz jolas egiteko ikastaroa

MONIKA BELASTEGI

Gurasoek seme-alabekin euskaraz jolas egiteko ikastaroa jarri du abian Udaleko Euskara Zerbitzuak, Lehen Hezkuntzako ikastetxe eta Eusko Jaurlaritzarekin laguntzarekin. Ikastaroan ume jolas eta kantuak eta ipuin kontaketa jorratuko dira.

Gurasoek euren umeekin euskaraz jolas egiteko ikastaroak helburu bikoitza du: batetik, gurasoei seme-alabekin euskaraz jolas egiteko baliabideak eskaintzea; eta bestetik, baliabide horien bitartez, umeen emozio heziketa bultzatzea eta umeen eta familiakoen arteko afektibitatezko loturak indartzea, horretarako, kantu, jolas eta ipuinez baliatuz.

Ikastaroa, batez ere, ume txikiak dituzten gurasoei zuzendu-

ta dago, baina begirale, zaintzaile eta, oro har, interesa duen edonork parte har dezake. Iaz ere antolatu zuen Udaleko Euskara Zerbitzuak horrelako ikastaroa. Hura gurasoei soilik zuzenduta zegoen. Aurten zabalagoa egitea erabaki dute antolatzaileek.

Izena emateko epea azaroaren 29ra arte egongo da zabalik, eta txartel bat ere bete beharko da. Txartelean, ohiko datuez gain, euskara mailari buruzko datuak eta ikastaroa jasotzeko ordutegi aiposenaren inguruko galderak jasotzen dira. Izena emateko txartelak Udaleko Euskara Zerbitzuan utzi beharko dira. Kontuan izan behar da, bestalde, plaza mugatuak daudela.

### HIZKUNTZAZ ETA EMOZIOEZ JABETZEKO BALIABIDEAK

Umeekin jolas egiteko ikastarolari saio teoriko batekin edo bire-

kin emango zaio hasiera, eta bertan, ikastaroetan eskainiko diren baliabideek umearen hizkuntza jabeakuntzarako eta emozio heziketarako duten garrantzia aztertuko da.

Atal praktikoari dagokionez, berriz, jolas eta kantuen inguruko ordu eta erdiko zortzi saio egingo dira, eta ipuin kontaketaren gaineko ordu eta erdiko beste lau saio.

Ikastaroak abenduko bigarren astean hasiko dira. Izen ematea bukatu eta taldeak osatu ondoren zehaztuko da talde bakoitzaren hasiera eguna.

Ordutegiari dagokionez, taldeen arabera antolatuko dira. Ikastaroa non egingo den ere taldeen arabera zehaztuko da. Esan bezala, hori guztia izena emateko txartelean jasotako datuen arabera zehaztuko dute antolatzaileek.

## LABUR

### Emakumearen aurkako indarkeria salatzen egingo den ekitaldirako dei egin du Udalak

Domekan, hilak 25, emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako eguna izango da. Hori dela eta, domekan, 12:30ean, San Martin plazan egingo den ekitaldian parte hartzeko dei egin du Udalak, Emakunderen proposamenari atxikiz. Ekitaldiaren leloa honakoa izango da: *Emakumeen aurkako indarkeria gehiagorik ez*. Ekitaldian lazo zuriak banatuko dituzte.

### Ibarreko historia geologikoa aztertzen irteera gidatua bihar, zapatua

Mendia Bizirik Taldeak eta Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatutako bigarren behatze-irteera bihar, zapatua, izango da.

Bigarren irteera honetan ibarreko historia geologikoa aztertuko dute, eta aditu bat ere izango da azalpenak emateko. Irteera ordua 08:30ak da, Pol-Pol tabernaren aurrean, eta ez dago aurrez izena eman beharrik.

### Debagoieneko Gurutze Gorriak dirua lortzeko kanpaina jarri du abian


Herriko hainbat komertzio eta tabernatan zenbait itsulapiko jarri ditu Debagoieneko Gurutze Gorriak. Jasoko duten diruarekin, ambulanzietarako materiala erosi nahi dute, baita boluntarioei zuzendutako ikastaroak egin ere. Kanpainak abenduaren 14ra arte iraungo du.



### Jaime diputatua saihebidetako obretan

Joan den egubakoitzean, Garraio eta Errepideetako diputatu Antton Jaime Ekialdeko saihebidetako lanak ikusten izan zen.

Lanak oso aurreratuta daudela esan zuen: lur mugimendua saihebidetaren %50ean bukatuta dago, eta Zubiaurreko tunelari dagokionez, 90 metro inguru zulatu dituzte. Eta gehitu zuen 2002ko irailerako lanak amaituta egongo direla.



**Ur-bide**  
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel. 943 76 15 09

ile  
apaindegia

edertze gela

**disdira**

Masterreka, 7. BERGARA  
Tf. 943 76 00 55

**iRUDI**

Erloju denda  
Bitxitegia

Ibargarai, 2  
BERGARA  
943 76 51 65

## ELKARRIZKETA

EUDALD GILLAMET/ZAHARBERRITZAILEA

# “Ondarearen kontserbazio pragmatikoa egon da Bergaran; behar zen tokian aktuatzen”

MONIKA BELASTEGI

**T**rinitateko mojen komentuan bi armari daude, oso egoera kaskarrean biak. Hori horrela, Eudald Gillamet zaharberritzaile ezagunak hobetze lanetan dihardu egun hauetan. Ondorengo kontatu digu lanei buruz.

### Ze egoeran daude armariak?

Oso gaizki. Normalean, deitzen digutenean oso gaizki daudelako da. Baina kasu honetan, zati batzuk erortzekotan daude. Bestalde oso zikinak daude, eta likena zuten, hau da, mikroorganismoak. Ondorioz, tratamendu bikoitza egin beharra egon da: bata, fungizida, armariak kutsatzen zituzten elementu organiko guztiak kentzeko. Bestea, kutsadura garbiketa. Horrekin, nahiko ondo garbitu ahal izan ditugu bi armariak.

### Hainbat zati erorita ere badaude.

Bai, zati batzuk falta dira, baina dauden egoera kaskarrean egonda, eta altuera kontuan hartuta, litekeena da lurrean harea baino ez aurkitzea.

Bestalde, hainbat pitzadura dituzte. Pitzadura horietan ura sartu, eta egiten duen tenperaturaren arabera, ura edo izotza izan



MONIKA BELASTEGI

daiteke, eta horrek harria apurtu egiten du. Hala ere, Bergarako harria oso ona da, eta zatiren batzuk apurtuta egon arren iraun egiten dute erori gabe.

Horixe izan da berreskuratze lanen hurrengo urratsa, harria sendotzea, hain justu ere. Eta azkenik, geruza babeslea eman diegu armariari. Produktu sin-

*“Kultura ondare izugarria duzue Bergaran. Nabari da herri aberatsa izan dela”*

tetikoekin egindako geruza bat, baina harriaren ezaugarria eraldatuko ez duten sintetikoekin, harriak arnasa berdin hartu dezan. Uste dut datorren astean amaituko dugula; eguraldiak laguntzen badu, behintzat.

### Balio handiko armariak dira?

Bai. Oso kalitate artistiko handia dute. Historiari dagokionez,

Andres Martinez de Ondarzak berfundatu zuen komentua; Biltoki gainera Ondartza etxea egin zuen berberak. Eta hango fatxadan ere komentuan dauden armari berberak daude: goiko aldean armari inperiala eta behealdean bere familiarena. Martinez de Ondarza Karlos V.aren idazkari zen, eta hori orduko gizartean argi geratu zedin, armari inperiala jarri zuen bere etxean, eta baita komentuan ere.

Baina, Bergaran, guztia da ona. Kultura ondare izugarria duzue hemen. Nabari da herri aberatsa izan dela. Orain, esaterako, Mallorcako katedralean dihardugu lanean. Eta Bergararekin batera, horrenbeste kalitate aurkitzen den herri bakarretakoa da Palma. Hemen, XV edo XVI. mendeko edozein etxe gotiko zoragarria da. XVIII. mendera arteko garaiak izugarria izan behar zuen Bergaran, eta oso nabaria da.

### Eta zer moduz kontserbatuta dago hori guztia?

Nahiko ondo. Ez da txundigarria, baina ondo dago. Arrazionalki ondo kontserbatuta dago, ondarearen kontserbazio pragmatikoa egon da Bergaran; aktuatzen behar den tokietan aktuatuta dute.

# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



San Pedro 21  
BERGARA  
943 76 20 49

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13



INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Teleforo Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

## Bertso afaria

Abenduaren 1ean  
GORLAKO KANTINAN  
Asier Otamendi eta Asier Arrieta

Izena ematea, 3.000 pta.,  
627 818 212 telefonoan.

Izen emateko azken eguna,  
azaroaren 28a.



## BANKINTER

# %3,5

etik aurrera lehen 6 hilabeteetan

Euribor-a + %0,50 garbia, ondoren\*

\*Irekiera  
komisioa:  
%1.  
35 urte  
bitartean

BERGARAN  
BULEGO BERRIA



BERGARA  
Ibargarai 3.  
943 76 97 97

LEGAZPI  
Santikutz 8.  
943 73 05 25

10 URTEKO  
ESPERIENTZIA!

## Dixula

### BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32  
BERGARA  
Tf. 943 76 44 95



## MENDE ERDIKOEN JAIA

**B**errogeita hamar urte bete dituzte edo beteko dituzte aurten argazkiko lagun hauek. Hori dela eta, afari ederra egin zuten joan zen azaroaren 10ean. 95 lagun elkartu ziren guztira. Afalostean, gainera, dantzaldia eta guzti izan zuten. Gero parranda polita egin zuenik ere izan zen. Nahi duenak abenduaren 1etik aurrera Kiñu argazki dendan izango du eskuragarri argazki hau eta egutegi bat. Ia bada mende osoa betetzen duzuen, koadrila!



## KALEKO MUSIKARIAK

**A**huntza eskailera gainean ikustea espero genuen, joan zen eguenean, kaletik musika hotsa entzun genuenean. Baina, ez. Ez zen ahuntzik ageri. Edonola ere, egueneko goiz hotza alaitu zuen, behintzat, euren musikarekin familia madrildar honek.

## GURIDI altzariak

Era guztietako  
altzariak

Artekalea 8. BERGARA  
Tel. 943 76 31 02

## ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8  
BERGARA  
943 76 53 12

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1. BERGARA  
943 76 02 57

## DENA 100etik

ZURE  
OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3  
BERGARA

## ezpeleta Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta  
egoitzetarako  
mahai-zapi eta  
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77  
Tf. eta faxa: 943 76 17 09



## GAZTELU BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



## IRRINTZI kafetegia

Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26

## ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



BERGARARRAK MUNDUAN

NATALIA FERNÁNDEZ

31 URTE / KOMERTZIALA / TURIN (ITALIA)

“Turindarren mentalitatea oso ezberdina da; hemengo jendea lanerako bizi da”

AINTZANE IRIZAR

**H**amahiru urte daramatza Nataliak Italian. Oso gazte joan zen hara, 17 urte besterik ez zuen. Bere esanetan, “alde batetik, Italia ezagutzeko eta italiara ikasteko gogo handia neukan; eta bestetik, mutil italiar bat ezagutu nuen oporretan, eta hori izan zen ni hona etortzeko bigarren arrazoia”.

Orain, Turinen bizi da Natalia; oporretan ezagutu zuen mutil harekin ez, baina beste italiar batekin dago ezkontuta, eta bi urteko alabatxoa dute, Nuria. Komertzial lanetan ibili da urtetan Natalia, “baina momentu honetan, langabezian nago, oraintxe bukatu zait kontratua”, azaldu digu.

Italiara egokitzea ez ei zitzaion askorik kostatu: “Izan ere, Benidormen, oporretan Turineko koadrila bat ezagutu nuen, eta Italiara etorri nintzenezan izugarri lagundu zida-

ten; azken baten, hona iritsi orduko baneukan lagun koadrila”, kontatu digu Nataliak. Hizkuntzarekin ere ez zuen arazo handirik izan, espainolez jakinda ez ei da batere zaila italiara ikastea.

Hala ere, turindarren mentalitatera eta ordutegietara

“*Hasieran, asko lagundu zidaten Benidormen ezagututako lagun italiarrek*”

moldatzea kosta egin zitzaion: “Hemen izugarri lan egiten dute, lanerako bizi dira, eta ez dute lan egiten bizitzeko. Fiat-eko mentalitatea daukate. Gainera, oso herri hotza da, oso hiri industrialia”.

Ordutegiari dagokionez, zera kontatu digu: “Arratsaldeko 19:00etan arimarik ere ez dago kaleetan; gainera, hemen ez dago txikiteorik, lanetik irten eta denak etxeetan sartzen dira”.

Batez ere, legatza nabaritzen du faltan Nataliak, “nire amatxoren legatza”, diosku.

Etorkizunari begira, Italian oso gustura dagoela esan digu, baina Bergarara bizi izatera itzultzeko itxaropenik ez duela inoiz galduko: “baliteke, egunen baten...”.



MINGAINARITIRAKA



Sara Elortza

LIBURUZAINA

**Liburutegiko langile berrixa dogu Sara, oin dala hillabete hasi zelanian. 32 urte dauzka eta azkoitiarra da. Kazetaritza eta Publizidade ikasketak egin zittuan.**

**Elosuko bidera ohittu zara?**

Bai, lehen be handik ibiltzen nitzan.

**Bergararrok asko irakurtzen dogu?** Oraindik denbora gutxi daroiat, baiña antzematen dot betiko jentia etortzen dala.

**Liburu bat gomendatzekotan?**

Patziku Perurena asko gustatzen jat; bat esatekotan, *Marasmus femininus*.

**Umetako ipuiñik gustokuena?**

*Alicia en el pais de las maravillas*.

**Telebisiñua, irratixa ala egunkarixa?** Irratixa.

**Irratsaio bat?**

Radio 3 eta Euskadi Irratiko irratsaiuak entzuten dittut.

**Publizidade ikasketak egin ziñuzen.**

**Gustatzen jatzun iragarki bat?**

Gabonetako loterixaren iragarkixa asko gustatzen jat. Egixa esan, telebisiñuan, gehixago gustatzen jat iragarkixak gainerako programak baiño.

**Jatordu ideal bat?**

Esparraguak, esparraguak eta esparraguak.

**Asteburu baterako plan ideala?**

Mendirra jun, bentatxo baten bazkaldu, baserri-turismoko etxe baten lo egin, eta inguruak ikusi.

**Manixa bat?**

Aulkixak euren tokixan egotia.

**Bizio bat?**

Erretzia.

**Zerk hasarratzen zaittu?**

Adibidez, animalixen maltratuak.

**Eta zerekin pozten zara?**

Eguraldi ona egitten dabela ikustiak eguna alaitzen dost.

AINTZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA/ Teresa Aranzibia

INDIA / 2001eko abuztuan

**E**san ohi da bidaiari batek derrigor bisitatu behar duela India. Gu joan edo ez joan zalantzan egon ginen, eta azkenean, aurtengo udan joatea erabaki genuen. Joan aurretik, gauza asko entzun genituen Indiari buruz: oso gauza gogorak ikusten direla eta horrelakoak, eta beldur pixka bat bageneukan.

Egia da gauza gogorak ikusten direla, edo guri, behintzat, gogorak egiten zaizkigunak. Baina hango kultura eta ohiturak ezagutzea eta ulertzen saiatzea da kontua. Varanasin, adibidez, Ganges ibaira botatzen dituzte hildakoak eta ibaiaren inguruan hilzorian dagoen jendea ikusten duzu, eta hori gogorra da. Baina gero, horren guztiorren zergatia azaltzen dizutenean, hori ulertzen saiatu behar zara: euren ustez, hor hiltzen badira, zerura, *Nirvanara*, joaten dira. Eta horrek, hain zuzen ere, harritu ninduen gehien, heriotzaren aurrean daukaten jarrerak, alegia. Oso lasai hartzen dute heriotza.

Bestalde, izugarria da hango kaleetako mugimendua; kalera irten eta denetik ikusten duzu: saltzaile mordoa merkatuetan, gamelu bat semaforoan zain, emakume bat pixa egiten, jendea hiltzeko zain...

Oso bitxia iruditu zitzaigun jendeak gurekin zuen jarrera: jendeak gerturatu eta ukitu egiten zaitu, euren ustez, zorte ona dakarrelako arraza zuriko jendea ukitzeak.

Varanasi hiriaz gain, Kalkuta, Khajuraho, Orcha, Agra, Jaipur eta Delhi ere bisitatu genituen. Bidaia oso gomendagarria da; batez ere, Varanasi bisitatu beharreko hiria da, denok bisitatu beharko genukeena. Dena dela, ahalik eta azkarren joatea gomendatuko nuke, mende-baleko ohiturak hartzen ari dela uste dut-eta. Jaitur, batik bat, oso hiri turistikoa da, eta hori nabari da.

AINTZANE IRIZAR



Orchako auzo baten, Teresa hango umeekin.

AKORT

Ipin ezazu zure ARGAZKIA PUZZLE BATEAN

**BERRIAI**

Izan zaitetz orijinala: ZURE OPARIAK LATA BARRUAN

Era guztietako kamisetak eta kirol-jertseak

Fotokopiak KOLORETAN

Enpresako OPARIAK egiteko, imajina dezakezun guztia: boligrafoak, agendak, aterkiak, ordenagailuendako alfonbratxo pertsonalizatuak...

Mugertza 7, BERGARA. Tel.: 943 76 50 39

GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES

BERGARA 607 349 043



**Grua zerbitzua**  
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

BOLU SUKALDEAK

Zure sukaldearen diseinua eta aurrekontua konpromiso barik

Bolu, 22-behea BERGARA Tel. eta faxa: 943 76 27 02

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta) BERGARA Tf. 943 76 27 93

FUTBOLA

# Bergarak 1-0eko emaitzarekin irabazi zion Aloña Mendi taldeari zapatuko derbia

Oñatiarren kontrako garaipenaren ondoren mahoneroak sailkapeneko hamargarren tokian dira

EDU MENDIBIL

Bergarako preferente taldeak 1-0 irabazi zuen Aloñaren kontrako derbia, zapatuan Agorrosinen. Bergarak partidu ona egin zuen, eta aurretik denboraldian bigarren aldiz hiru puntuak etxean geratu ziren. Sailkapeneko 10. tokian da Bergara, 17 punturekin.

Juanina Garaik zuzentzen duen taldeak partidu ona egin zuen zapatuan. Mahoneroek merezimendu osoz eskuratu zuten garaipena, Ortizek lehen zatian sartutako golari esker. Lehen zatia amaitzeko zegoela, aurrelari bergararrak aldaratutako baloi bat jaso zuen area txikian, eta partiduko gol bakarra egin zuen, Odrizola oñatiar atezaina gaindituz. Bergarak denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen Agorrosinen. Aurretik, Garairen taldeak, Pasajes taldeari irabazi zion.

Bergarrek lehen zatian hainbat gol aukera izan zituzten, baina ez zuten zorte handirik izan ate aurrean. San Vicentek lan aipagarria egin zuen zelai erdian, eta berak egin zuen partiduko jokalaririk onenetakoa; Aloña Mendiko pare bat jokalaririk atzean laga eta gero, eskumarekin jaurti zuen golera area ertzetik, eta bere jaurtiketa kanpora joan zen gutxiagatik.



Aloñan ari diren bergararrak. Zutik, Gotzon Urzelai, Ina Dovao eta Unai Arana. Makurtuta, Txonan Gallastegi eta Iñaki Mujika.

Partiduko bigarren zatian ez zen gol aukera garbirik izan eta jokoak zertxobait gogortu zen. Ondorioz, Perez epaileak talde bakoitzeko jokalaririk bana kanporatu zuen: Unai Arana Aloñaren partetik eta Mikel Oso-

ro Bergarako kapitaina. Biei ere bi txartel hori erakutsi zien epaileak.

Aloñak ez zuen ia ezertxo ere egin berdinketa lortzeko eta Markel Egaña Bergarako atezainak ez zuen apenas lanik izan.

## BERGARARRAK ALOÑA MENDIN

Gorka Zelaia Aloña Mendiko entrenatzaileak bost bergarar zelairatu zituen hasierako hamakakoan: Txonan Gallastegi defentsa, Gotzon Urzelai eta Unai Arana erdilariak eta Ina Dovao eta

Iñaki Mujika aurrelariak. Bostak mahoneroekin jardundakoak dira. Gallastegik eta Aranak Bergarako hirugarren mailako taldearekin jokatu zuten aurreko denboraldian, eta aurretik Aloña Mendira joatea erabaki zuten. Hala ere, Aloñako bergararrak ez zuten zorterik izan, ez zutelako emaitza positiborik lortu eta euren taldeak ez zuelako partidurik egin. Aloña sailkapeneko 17. postuan dago, 11 punturekin.

## HIRU PARTIDU ASTEBUKERAN

Futboleko karteldegia dago kionez, astebukaeran hiru partidu izango dira Bergaran. Zapatuan, lehen mailako erregionaleko taldeak Tolosaldearen aurka jokatuko du Agorrosinen, 15:30ean. Bergarak 1-5 irabazi zuen aurreko zapatuan Eibarren. Gazteak taldearen aurka, Unben. Karlos Lasaren taldea 10. tokian dago eta zapatuan ez dute partidu erraza izango, tolosarrak 4. postuan daude eta. Partidu bakarra galdu dute eta gol gutxien jaso duen taldea da Tolosaldea (7 gol bakarrik egin dizkiote).

Bestalde, ohorezko mailako gazteek San Tomas Lizeoaren aurka jokatuko dute zapatuan. Ipintzan, 17:45ean. Domekan berriz, Bergara eta Urnietako infantil mailako taldeen arteko partidua izango da, 11:00etan Ipintzan.

## Muruamendiaraz-Zabala domekan Bergaran, lau t'erdia barruan

EDU MENDIBIL

Bigarren mailako lau t'erdiko txapelketaren barruan, Iker Muruamendiarazek Zabalen aurka jokatuko du domekan Bergarako Udal Pilotalekuan. Domekako pilota jaialdia 17:00etan hasiko da.

Edorta Zabalak eta Iker Muruamendiarazek jaialdiko bigarren partidua jokatuko dute. Partidua bigarren mailako lau t'erdiko txapelketako final laurdenetakoa da. Irabazleak Badiola III.a eta Pinedoren arteko partiduko irabazlearen aurka jokatuko du datorren astean.

Domekan beste bi partidu jokatuko dira Bergaran: lehenbizikoan Ariznabarreta-Mendia eta Gonzalez-Sukia bikoteek neuruko dituzte indarrak. Azkenik, hirugarren partiduan, Haritz-Bernal eta Gracia-Fuertes izango dira aurrez aurre.



Jokin Etxanizek agur esan zion lau t'erdiko txapelketari.

## JOKIN ETXANIZEK GALDU

Bestalde, Jokin Etxanizek galdu egin zuen 18-22ko emaitzarekin, Iban Otaegi azpeitiarraren aurka joan zen egubakoitzean Zegaman, lau t'erdiko txapelketan.

Etxaniz 7-3 aurreratu zen, baina Otaegik buelta eman zion markagailuari (7-15). Jokinek berriz ere aurrea hartu zuen (18-17), baina azken tantuak Otaegiren aldekoak izan ziren. Bi pilotariak 443 pilotakada eman zituzten.

## Eskubaloiko bi partidu astebukaeran Labegaraietan

E.M.

Astebukaeran eskubaloiko bi partidu jokatuko dira Labegaraietako Kiroldegian. Zapatuan, 16:15etik aurrera, kadete eta senior taldeek Aloña Mendi eta Leizaranen kontra jokatuko dute, hurrenez hurren.

Kadete mailako taldeak Aloña Mendi izango du bisitari, 16:15ean hasiko den partiduan. Oñatiarrak sailkapeneko liderrak ditugu eta bergararrak hirugarren postuan daude. Beraz, partidu ona ikusteko aukera izango da. Edu Eguren, Aitor Ibarra eta Edu Iñarrak zuzentzen duten taldeak garaipen inportantea lortu zuen aurreko jardunaldian Egiaren aurka, Donostian. Bergarrek 17-20ko emaitzarekin irabazi zuten. Esan bezala, zapatuko partidua erabakigarria izan daiteke etxekoentzat. Oñatiarrei irabaztekotan, Bergarak aurreraupaso handia emango

luke sailkapenaren goialdean jarraitzeko. Hala ere, ez dute partidu erraza izango.

## SENIORRAK LIDER

Jarraian, senior mailako taldeak Leizaranen aurka jokatuko du 17:45ean. Bergara sailkapeneko lehen postuan dago eta Leizaranekoak hirugarren postuan dira. Edu Orgazen taldea denboraldian borobila egiten ari da eta bolat onari eutsi nahi izango dio zapatuan ere. Aurreko astean atsedena izan zuten bergararrak Etxeko partiduetan gertatzen diren bezala, zaleen laguntzak ere zehazki izan dezake garaipena eskuratu ahal izateko.

Bestalde, gazte mailako taldeari dagokionez, oraingo astebukaeran atsedena izango dute Joan zen astean 27-23 galdu zuten Josetxo Muniategiandikotxearen taldeak Urolaren aurka Zumarragan. Nahi baino okerrago ari dira gazteak, sailkapenaren erdialdean.

## LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

### EMAITZAK

#### A MULTZOA

Amilotox-Bicip. Igartua	9-1
Torrekua-Agirrebeña	1-6
Kanpazar-Bar Ganbara	3-0
A Ze Flaxa-Komando Piperrak	12-4
Bar Ugarte-Eri	5-3

#### B MULTZOA

Vacalouras-Bar Bedarreta	1-7
Txipiron-Etengabe	17-0
Aterpe-Bar Canalejas	1-6
Bar Bedarreta-THT	8-0
Artekale pizzeria-Amoskibar	4-3
Irubide-Vacalouras	3-1

#### C MULTZOA

Ortzi-Artusamak	4-4
Errotagain-Dedo Pafarru	8-2
Artusamak-Timofonika	8-1
Pagomendi-Ortzi	4-3
Patxaran-Bayer	2-11

### PARTIDUAK

#### ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Dedo Pafarru-Patxaran. Bici. Igartua
10:30: Bici. Igartua-Kanpazar. Agirrebeña
11:30: Eri-Agirrebeña. Mongatxurak
12:30: Mongatxurak-Bar Ugarte. Eri

#### ZAPATUAN, KANPOAN

17:00: Etengabe-Irubide. Timofonika
18:00: Timofonika-Pagomendi. Irubide

#### DOMEKAN, BARRUAN

09:30: THT-Txipiron. Argandolas
10:30: Errotagain-Argandolas. A Ze Flaxa
11:30: Torrekua-A Ze Flaxa. Artekale piz.
12:30: Bar Canalejas-Artekale piz. Torrekua
16:00: Vacalouras-Aterpe. Amoskibar
17:00: Amoskibar-Bar Bedarreta. Vacalou.

### SAILKAPENA

#### A MULTZOA

	P	J
1. A Ze Flaxa	21	7
2. Agirrebeña jatetxea	16	8
3. Mongatxurak	13	6
4. Bar Ugarte	13	7
5. Torrekua	9	8
6. Kanpazar Harrobia	9	8
7. Komando Piperrak	8	8
8. Eri	7	7
9. Biciprecisión Igartua	4	7
10. Amilotox	4	7
11. Bar Ganbara	1	7

#### B MULTZOA

	P	J
1. Bar Bedarreta	24	8
2. Aterpe	18	8
3. Bar Canalejas	17	8
4. Vacalouras	11	8
5. Irubide jatetxea	10	7
6. Amoskibar	10	8
7. Artekale pizzeria	9	8
8. THT	7	8
9. Txipiron	1	7
10. Etengabe	0	8

#### C MULTZOA

	P	J
1. Errotagain	21	7
2. Artusamak	16	7
3. Dedo Pafarru	13	7
4. Bayer	12	8
5. Argandolas	10	7
6. Pagomendi	9	6
7. Ortzi	7	8
8. Patxaran	3	7
9. Timofonika Team	3	7
10. Bildurbarek	0	0

## FOTOKIROLA



### Ziklismozaleek denboraldiari agur

Urtero moduan, herriko ziklismozale talde batek denboraldi amaierako afaria egin zuen egubakoitzean Elorregin. Zaleekin batera, Odriozola, Chaurreau, Laiseka, Irizar eta Astarloza txirindulariak eta Txomin Perurena izan ziren.

## GAINBEGIRADA

### MULTIKIROLA

### Herriko kirol taldeen txostenak jasotzeko epea abenduaren 7ra arte zabalik izango da

Bergarako Udal Kirol Zerbitzuak jakinarazi duenez, Udalaren dirulaguntzaren bigarren zatia jaso nahi duten kirol taldeek euren txostena aurkezteko epea abenduaren 7ra arte zabalik izango dute. Argibide gehiago Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefono zenbakian.

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

**Bergara-Tolosaldea**  
Lehen erregionala. Zapatua, 15:30. Agorrosin.  
**Bergara-Santo Tomas Lizeoa**  
Ohorezko mailako gazteak. Zapatua, 17:15. Ipintza.  
**Bergara-Urnieta**  
Infantilak. Domeka, 11:00. Ipintza

### ESKUBALOIA

**Bergara-Aloña Mendi**  
Kadete mutilak. Zapatua, 16:15. Kiroldegia.  
**Bergara-Leizaran**  
Senior mutilak. Zapatua, 17:45. Kiroldegia

### PILOTA

Gabonetako txapelketa  
**Gorka Irizar-Markel Elkororiribe** (Alebin B)  
**Iñaki Igartua-Aritz Rezusta** (Alebin B)  
**Beñat Etxezarreta-Ibon Berraondo** (Infantil B)  
**Xabi Azurmendi-Ander Usaola** (Kadeteak)  
Gipuzkoako txapelketa  
**Bergara-Ikasberri** (bigarren mailako seniorrak)  
Egubakoitzean, 19:00. Udal Pilotalekua.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

**Bergara 1 Aloña Mendi 0** (Preferente maila)  
**Gazteak 1 Bergara 5** (Lehen erregionala)  
**Bergara 2 Antzuola 3** (Neskak)  
**Aldapetarrak 0 Bergara 6** (Ohore. mail. gazteak)  
**Bergara 1 Luberrri 1** (Lehen mailako gazteak)  
**Bergara 2 Aurrera Ondarroa 0** (Ohore. kadeteak)  
**Bergara 1 Aretxabaleta 3** (2. mailako kadeteak)  
**Idiazabal 0 Bergara 0** (Infantilak)

### ESKUBALOIA

**Urola 27 Bergara 23** (Senior mutilak)  
**Egia 17 Bergara 20** (Kadete mutilak)

### SASKIBALOIA

**Bergara 69 Kostkas 60** (Senior mutilak)  
**Bergara 60 Tolosa 57** (Gazte mutilak)  
**Aloña Mendi 62 Bergara 19** (Kadete mutilak)

### PILOTA

**Bergara II 13 Elgeta 18** (Infantilak)  
**Bergara I 18 Elgoibar III 6** (Infantilak)  
**Bergara 22 San Esteban 6** (Kadeteak)  
**Bergara 19 Añorga IV 22** (Gazteak)  
**Eskoriatza 22 Bergara 5** (Senior banaka)  
**Amezketza 22 Bergara 12** (Lehen mail. seniorrak)

## ARGI IBILI!

### BILDURBAREKEN KONTRAKO PUNTUAK EZ DIRA KONTUAN HARTUKO

Joan den astean, antolatzaileek Bildurbarek Opel Lam taldea txapelketatik kanporatzea erabaki zuten. Hori dela eta, lehenbiziko jardunaldietan Bildurbarek taldearen kontra punturen bat lortu zuten taldeei puntu horiek kenduko dizkiete. Horixe erabaki zuen antolaketa batzordeak martitzeneko batzarrean.

### EPAILEEI ERRESPECTUA, EZINBESTEKOA

Antolatzaileek adierazi dute epaileei errespeturik azaltzen ez dieten taldeak zigortuko dituztela. Hortaz, modu txarrak eta protestak aldagelan lagatzea eskatu du antolaketa batzordeak. Bestalde, Komando Piperrak taldeko Jon Larrañagak partidu bateko zigorra bete beharko du, azken partiduan bi txartel ikusi eta gero.

## GORA ETA BEHERA

### BAR BEDARRETA ETA TXIPIRON

Bar Bedarretak sendo segitzen du B multzoko lidertzan. Aste bukaeran bi partidu jokatu eta biak irabazi zituen, Vacalouras eta THT taldeen aurka, hain zuzen. Multzo berean, Txipiron 17-0 nagusitu zitzaion Etengabe taldeari.

### BAR GANBARA, ETENGABE, THT

Hiru talde horiek ez zuten golik sartu euren partiduetan. Bar Ganbarak 3-0 galdu zuen Kanpazarren aurka, Etengabek gol zaparrada jaso zuen Txipironen aurka (17-0) eta THTk Bar Bedarretaren kontra galdu zuen (0-3).

# Zatoz

urte bukaerako

# deskontuak

# aprobetxatzera!



KONTZESIONARIO OFIZIALA

Olabarrena auzoa • 943 76 33 44 • BERGARA

# EDEL

## TAPIZDENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoia, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



Argazkian Javier Pérez de Azpeitia pianojotzailea; Quinteto clásico de jazz taldeko kidea.

Jazz taldeak osoko bilkuren aretoan emango du emanaldia, 19:30ean

## Quinteto clásico de jazz taldearen saioa, zapatuan

MONIKA BELASTEGI

Izenak dioen bezala, bost musikariek osatzen dute taldea, eta flauta, piano, kontrabaxu, perkusio eta biolontxelo dira oinarria. Emanaldiaren izena "Klasikoaren eta jazzaren artean" da, eta bihar, zapatua, izango da, 19:30ean, osoko bilkuren aretoan.

Jazzak musika genero independentea dirudien arren, musika klasikoaren parte da. Argi erakutsiko du hori Quinteto clásico de jazz taldeak, bihar Udaleko osoko bilkuren aretoan egingo duen "Klasikoaren eta jazzaren artean" emanaldian.

Bost kidek eta bost instrumentu osatzen dute taldea: Rouslana Prokopenko biolontxelo jotzaileak, Anthony Lafargue bateria jotzaileak, Aleksander Mikolajezyk kontrabaxu jotzaileak, Eli Podolak flauta jotzaileak eta Javier Perez de Azpeitia pianistak.

### MUSIKARI ESPEZIALIZATUAK

Bost musikariek eskarmentu handia dute instrumentuarekin, eta maila handiko jotzaileak dira.

Rouslana Prokopenko biolontxelo jotzailea Ukrainakoa da, eta bertan hasi zituen biolontxelo ikasketak sei urterekin. Goi ikasketak Moskun amaitu zituen, Tchaikovsky Kontserbatorioan, 1995. urtean, eta hurrengo bi urteetan doktoradutza egin zuen biolontxelo espezialitatean. Gaur egun biolontxelo bakarlarik da

Euskadiko Orkestra Sinfonikoan.

Anthony Lafargue perkusiojotzaileak, Toulouseko Kontserbatorioan egin zituen lehen ikasketak. Hainbat orkestratan aritu da, eta finalista izan da Pariseko eta Loira herrialdeko Orkestratan egindako tinbal bakarlarik lehiaketetan. Gaur egun perkusio eta tinbal bakarlarik da Euskadiko Orkestra Sinfonikoan.

Boskoteko hirugarren kidea Aleksander Mikolajezyk Poloniako kontrabaxu jotzailea da. Mikolajezyk Poloniako irrati eta telebistako Orkestrako bakarlarik izan da, eta baita Mexiko Hiriko Orkestra Filarmonikoko bigarren kontrabaxu ere. Birritan bakarlarik gisa jardun du Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin.

Flautari dagokionez, Eli Podolak poloniarra joko du. 1983. urtetik Donostian bizi da. Hainbat aldiz Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin ibili da, eta Arrasateko "Arrasate Musikal" ak-

demian irakasle ere aritu da. Gaur egun, Ordiziako Musika Eskolan dihardu irakasle.

### PIANO JOTZAILEA, EUSKALDUNA

Javier Perez de Azpeitia piano jotzailea dugu boskoteko euskaldun bakarria. Beran jaioa, Donostiako Kontserbatorio Nagusian egin zituen musika ikasketak, eta gero, Madrilgo Kontserbatorio Nagusian jarraitu zituen; han bukatu zuen goi gradua Angeles Renterriaren katedran, eta ondoren, Hans Graf, Joaquin Atxukarro, J. C. Lynden eta Jacques Rouvierrokin. 1988.ean, Liejako Errege Musika Kontserbatorioan ikasi zuen Joseph Altidimaisuarekin. Hainbat sari jaso ditu eta baita errezital ugari eskaini ere.

Quinteto clásico de jazz taldeak bihar, zapatua, egingo du emanaldia, Udaleko osoko bilkuren aretoan, 19:30ean. Emanaldia dohain izango da.

## Klasiko eta jazzaren artean

**Flauta eta Piano Jazz Hirukotearendako Suitea**  
Flauta, eta piano, kontrabaxu eta bateria hirukotea

*Baroque and blue*  
*Sentimentale*  
*Irlandaise*  
*Veloce*

Bi Suiteak Claude Bolling musikagilearenak dira.

**Txelo eta Piano Jazz Hirukotearendako Suitea**  
Txelo, eta piano, kontrabaxu eta bateria hirukotea

*Galop*  
*Concertante*  
*Cello Fan*

## LABUR

### Manu Muniategiandikoetxearen lanak Bartzelonan ikusgai urtarrilaren 9ra arte

Artista bergararraren lanak Bartzelonako Centre d'Art Santa Mónica daude ikusgai. Gure Artea lehiaketan sariak jaso duten artisten lanek osatzen dute erakusketa. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak antolatzen du lehiaketa, eta helburua artista gazteen lana ezagutaraztea da. Urtarrilaren 6ra arte egongo da ikusgai. Bestalde, ARCon ere parte hartuko du Windsor galeriarekin.

### Agustin Gurrutxaga bergararra garaile 'Bergarako Argazki Rallya 2001'ean

Rallya urriaren 21ean jokatu zen. 36 lagunek hartu zuten parte; horietatik 21 Bergarakoak. Gaiak baratzea, begiak, atea, seinalea eta beste bi libre izan ziren. Lehen saria, Agustin Gurrutxagarentzat izan zen; bigarrena, Santos Vega ermuarrak jaso zuen, eta hirugarrena Alen Silva durangarrak. Herriko saria Oihane Gurrutxagarentzat izan zen, eta gazte saria, Naiara Canterorentzat.

### Bergarako Orkestra Sinfonikoak *Katuska* zartzuela egingo du Arrasateko Amaian

Arrasateko Izaskun Murgia Elkarte Lirikoarekin batera, *Katuska* zartzuelan hartuko du parte Bergarako Orkestra Sinfonikoak. Orkestrako 35 kide izango dira, hain justu, zartzuelari musika jarriko diotenak. Bi emanaldi eskainiko dituzte abenduaren 15ean eta 16an, Arrasateko Amaia Antzokian.

### Nemeth Zolán eta Jone Telleriaren pintura erakusketa Errotalde Kultura Etxean

Nemeth Zolán eta Jone Telleria pintoreek erakusketa ireki dute Kultura Etxean. Erakusketa abenduaren 2ra arte egongo da irekita ohiko ordutegian: astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 21:00etara, eta zapatu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.



Jardun euskara elkarteak bederatzi urte daramatza bertso jaialdiak antolatzen.

## Bertso jaialdia Zabalotegi aretoan Jardunen eskutik

MONIKA BELASTEGI

Jardun Euskara elkarteak bertso jaialdia antolatu du azken urteotan egin izan ohi duen bezala. Saioa, gaur, egubakoitza izango da, 22:30ean, Zabalotegi aretoan.

Jardun elkarteak antolatutako bertso jaialdian honako bertsolari hauek hartuko dute parte: Andoni Egaña, Ainhoa Agirreazaldegia, Joxe Agirre, Jesus

Mari Irazu eta Sebastian Lizasok. Gai jartzaile lanetan Jon Zaldua arituko da. Sarrera 1.000 pezeta.

### BEDERATZI URTE JARRAIAN

Duela bederatzi urte antolatu zuen Jardunek lehen bertso jaialdia. Ordutik, urtero-urtero, hutsik egin gabe jaialdia antolatu du, eta bertso saioa antolatzeko helburuak ere bere horretan dirau: euskal kultura suspertzera.

E, TXO!

GUREGAIK/ ATZERRIAN DESKONTUAK

# Nazioarteko txartelak egiteko epea zabalik

AINTZANE IRIZAR


**Atzerrira bazoaz eta ikaslea baldin bazara, edo 25 urte baino gazteagoa, aukera interesgarria duzu honako txartel hauetako bat lortzea. Deskontu ugari izango dituzu 700 pezetaren truke.**

Ikasleendako nazioarteko txartela ISIC izenekoa da. Dagoeneko ikaslea ez bazara, baina 25 urte baino gutxiago baldin badaukazu, YTIC izeneko txartela eskura dezakezu.

Estatu mailan ere hainbat deskontu lortu daitezke txartel horiekin, baina batez ere atzerrirako dira erabilgarriak. Garraio publikoetan, museoetan,

eta beste hainbat tokitan egiten dituzte deskontuak txartel hauekin. Mundu osorako balio dute; noski, herrialdearen arabera, deskontuak aldatu egiten dira.

Urtebeteko iraupena izaten dute txartel horiek, urtarriletik abendura, hain zuzen ere. 2002ko txartelak lortzeko epea dagoeneko zabalik dago. Horretarako, Gazte Informazio bulegora jo dezakezue; argazki bat, ikasle izatearen agiria eta nortasun agiriaren fotokopia eraman behar dira, eta 700 pezeta ordaindu. Gogoratu ezazue Kultura Etxean dagoela informazio bulego hori, eta honako ordutegi hau dauka: eguen eta egubakoitzetan, 16:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan, goizeko 09:30etik 13:30era.



AINTZANE IRIZAR

Ikasle txartelak urtebeteko iraupena dauka, urtarriletik abendura artekoa.

## KUADRILLATEGIREKIN 'MUNDUA KONPONTZEN'

Nahiko lan izango dute Kuadrillategikoek bihar, zapatua, *Mundua konpontzen*. Izen horixe jarri diote biharko saioari. Izan ere, mundua konponduko duten ez dakigu, baina ahalegindu, behintzat, ahaleginduko dira. Gazteak kezkatzen dituzten gaien gainean jardungo dute Zabalotegin, Udal Euskaltegian. Zapatuan izango da, esan bezala, saio hori, arratsaldeko 15:30ean.

## ATERPEKIDE AGIRIA LORTZEKO AUKERA

Euskal Herriko edo kanpoko aterpetxeetan deskontuak lortzeko aukera eskaintzen du agiri horrek. Nazioarteko txartelaren kasuan moduan, Gazte Informazio Bulegoan eskura dezakezue. Gazteenek, 14 eta 25 urte bitartekoek, 500 pezeta ordaindu beharko dituzte (Gazte Txartelarekin 250 pezeta); eta 25 urtetik aurrerakoek, 1.000 pezeta. Gainera, nortasun agiriaren fotokopia ere eraman behar da. Txartel hori urteko edozein sasoiatan atera daiteke.

## JESUS OLAIZOLA BEKA

Antso Jakituna Fundazioak ematen du beka hori, euskal kulturaren inguruko dokumentuak berreskuratzeko helburuarekin. Diplomadun edo lizentziadunek dute beka hori eskuratzeko aukera, milioi bat pezeta guztira. Proiektuak aurkezteko azken eguna azaroaren 30a da, datorren egubakoitza. Informazio gehiago nahi izanez gero, Antso Jakituna Fundaziora jo dezakezue edo honako web orrira: [www.fsancho-sabio.es](http://www.fsancho-sabio.es).

## LOTSABARIK/ Patrizia González

# "Ikasteko orduan ez daukat pazientziarik"

AINTZANE IRIZAR

**Patriziak 15 urte dauzka, eta oso musikazalea da, familiatik dator kio. Oso neska alaia eta lasaia da, baina era berean, pazientzia segituan galtzen e du. DBHko laugarren ikasturtean ari da.**

**Txikitari, zer izan nahi zenuen?**

Irakaslea izatea nahi nuen; seguraski, familian irakasle asko daukadalako izango da.

**Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zeure burua?**

Ez dakit; datorren urtean zer ikasiko dudan ere ez dakit, horrik kontuak atera.

**Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?**

Ikasteko eta gauzak ondo egiten saiatzeko. Kasu egiten saiatzen naiz.

**Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.**

Ondo portatzea: kontrakoa ez eramatea, eta esandakoa lehenengoan egitea.

**Bizitzan zeri ematen diozu lehenetara?**

Lagunei, familiari eta osasunari.

**Zure bertute bat?**

Alaia naizela; eta baita lasaia ere.

**Eta hutsune bat?**

Ez daukat pazientziarik; ikasteko orduan, adibidez, gauza bat

lehenengoan ulertzen ez baldin badut, neure buruarekin haserretzen naiz.

**Zure gorputzeko atalik gustukoena?**

Eskuak.

**Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?**

Aurpegiari, ikusten den lehenengo da eta.

**Zer egiten duzu seduzitzeko?**

Nik ez dut seduzitzen, ez dut ezer egiten seduzitzeko. Naizen bezalakoa azaltzen naiz beti; ez dut faltseatzen, batzuetan sinpatika, eta beste batzuetan ez.

**Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?**

Galdera horri ez diot erantzun behar.



ADINA: 15 urte • IKASKETAK: DBH 4.a • ZALETASUNAK: Perkusioa jotzea eta eskiatzea • LIBURU BAT: Ez du irakurtzen, ez zaio gustatzen • FILM BAT: 'Pasio leionak' • MUSIKA TALDEA: Ramones • KIROL TALDEA: Reala

## TIRABIRAKA/ Gorka Ortega eta Jon Alvarez



## ZAHARRENETXETIK



EDU MENDIBIL

Produktuen salmentarekin jasotako dirua Coprodelik Perun garatzen dituen giza programetara zuzenduko da.

## Peruko artisautza salgai dago San Joxepe elkartean domekara arte

EDU MENDIBIL

**C**oprodeli gobernuz kanpoko erakundeak eta San Joxepe elkarteak antolatuta, Peruko artisautza salgai dago egunotan San Joxepeko lokalean, Boni Laskurain kalean. Erakusketa domekara arte izango da zabalik, goiz eta arratsaldez.

Coprodeli (Comuni3n, Promoci3n, Desarrollo y Liberaci3n) gobernuz kanpoko erakunde 1989.ean sortu zen, Miguel Raneira misiolariaren ekimenez. Jatorri kristaua duen erakunde honek Callao eta Lima Peruko hirieta-ko bazterreko auzoetan lan egiten du batik bat, behartsuenei laguntza emanez. Besteak beste, euren garapenerako hainbat proiektu jarri ditu martxan. Haurren eta gazteen egoera hartzen dute bereziki kontuan. Hain zuzen ere, hezkuntza kalitatea hobetu nahirik, hamar ikastetxe sortu dituzte azken urteotan.

Estatuan, bere eginkizunen artean, komertzio justoa deri-

tzona dago. Peru eta Ekuadorreko 100 bat tailerretako produktioa lagundu nahirik, hango artisautza salgai jartzen dute. Jasotako dirua, Coprodelik Perun garatzen dituen giza programetarako zuzentzen da.

Coprodelik kolaboratu izan du aurretik San Joxepe elkarte-

arekin. Honako hau bigarren aldia da Peruko artisautza San Joxepen salgai jartzen dena. Aurrekoan erantzun ezinhobea jaso zuen hango produktuen salmentak. Astelehenean, erakusketa zabaldu zenean, herritar dezente hurbildu zen erakusketa ikustera. Antolatzaileek herritar guztiei erakusketa ikustera joateko gonbidapena egin diete. Domekara arte goiz eta arratsaldez egongo da zabalik, 10:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

### PRODUKTU EZBERDINAK

Coprodeliren erakusketan era guztietako artisau lanak daude salgai: zeramika eta egurrezko piezak, margoak, jertseak; bitxiak etabar luze bat. Prezioei dagokienez, pieza bakoitzak zehaztuta dauka bere salmenta neurria. Produktu garestienak 15.000 pezeta balio du eta gainerakoak hortik beherakoak dira. Erakusketak ikusmin dezente piztu du eta antolatzaileek astebukeraren salmentek gora egitea espero dute.

### Gazteen enplegua helburu

**Peruko artisautzaren salmentaren bitartez, hango gazteen enplegua bultzatu nahi da. San Joxepeko erakusketan jasotako diruarekin, hain zuzen ere, enplegua sortzeko hainbat programa diruz lagunduko dira. Errekurtso gutxiko gazteei lan merkatuan sartzeko aukera eman nahi zaie. Artisautza tailerrak irtenbide bat dira eurendako.**



### Nagusien gaineko erredakziorik onenak

Gazteek nagusiei buruz duten irudia jakin nahian, erredakzio lehiaketa deitu zuen San Joxepeko Kultur Hamabostaldia- ren barruan. 432 ikaslek hartu zuten parte. Lehen hezkuntzako artean Itxaso Aranzabal, Elisa Kortabarria eta Sergio Gonzalez, eta DBHkoen artean, Ariana Arizabaleta, Ibane Baseta, Mireia Castells eta Ainhoa Mujika saritu zituzten. Argazkian, sarituak Gema Zenitagoia La Caixako ordezkariekin.

## ZAHARRETXOKOTIK

### Luis Gantxegi

SAN JOXEPEKO ATEZAINA


**Luis Gantxegi osintxuarrak hemeretzi urte daramatza San Joxepeko atezain lanetan. Beti bezain umoretsu hartu du orrialde hone- tan azaltzeko gonbidapena.**

**Hemeretzi urte lanean erretiratuen lokalean. Bertan erretiratzeko asmorik, ala?**

Oraingoz behintzat gustora ari naiz San Joxepe elkartean lanean eta lagatzen banaute hemen erretiratuko naizela uste dut. Orain dela 19 urte deitutako oposizio lehiaketa- ra aurkeztu nintzen eta lanpostua eskuratu nuen.

**Zer nolako lana egiten duzu?**

Arratsaldez egoten naiz, 14:00etatik 21:00etara. Orduan etortzen da jende gehien, ekin- tza gehienak arratsaldez dire- lako. Lokala zaintzeko ardura daukat eta noizean behin *txa-*




*puzillak* egitea tokatzen zait. **Zela ikusten dituzu gaur egungo erretiratuak?**

Lehengokoen aldean, sasoi onekoak. San Joxepen badira beti gauzak antolatzen dabil- tzanak, lokalari bizia ematen diotenak. Beste batzuk, berriz, kartetan pasatzen dute arratsalde osoa.

# INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49



943 76 48 08.  
Zubieta 26  
BERGARA

## AGOITZ

tapiz  
denda

Leizariako  
San Lorentzo, 25  
BERGARA  
Tel.: 649 112 675

## Ganbarara

TABERNA

**Heure erara  
ibiltzeko!**

Irala z/g.  
BERGARA  
Tel. 943 76 55 75

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Plaza honi izena ematen dionak 1764an opera irrigarri bat estreinatu zuen Bergarako Udaletxean. Zein da haren izena eta zein da operaren izenburua?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Platano arrunta

*Platanus hispanica*

MAITANE ARIZABALETA

**B**errogei metro har dezakeen zuhaitz hostogalkorra. Enborra zuzena eta sendoa du eta azala forma irregularreko plaka marroi ilun meheetan askatzen da. Hostoak txandakatuak, palmatuak eta triangeluarrak dira, goialdean berde bizia goa behealdean baino. Lore arrak eta emeak zuhaitz berean daude, fruituak esferikoak dira, eta kandu luzeetatik zintzilikatzen dira. Fruitu kopurua handia bada ere, haziak nekez ernaltzen dira, eta horregatik, haren ugalketa artifizialki egiten da.

Bestalde, ebanisterian, zurgintzan eta eraikuntzarako oso egokia izan arren, apaingarri gisa erabiltzen da, batik bat. Kaleetan, ibiltokietan landatzen da, esate baterako, Espalioan, Boni Laskurain... Urtetan oso erabilia izan da monolaborantza moduan, eta leku askotan arazo nabarmenak eragin ditu alde aurretik zuhaitzaren kokapen egokia ez delako aztertu. Horren ondorioz, askotan inausketa basatiak pairatu behar izan ditu. Orokorrean zuhaitz noble honek izan duena baino tratamendu egokiagoa eta etikoagoa merezi duelakoan nago.

*“Zurgintzan eta eraikuntzan egokia, apaingarri gisa erabiltzen da, batik bat”*



EDU MENDIBIL

GALDEDEBALDE

**1.**  
Noiz da emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako eguna?

- A/ Azaroaren 25ean.
- B/ Abenduaren 17an.
- C/ Martxoaren 8an.

**2.**  
Zein da *Quinteto clásico de jazz* taldeko kide euskaldun bakarra?

- A/ Javier Pérez de Albeniz.
- B/ Javi Pez.
- C/ Javier Pérez de Azpeitia.

**3.**  
Zeinek sartu zuen Bergara-Aloña futbol partiduko gol bakarra joan zen zapatuan?

- A/ San Vicentek.
- B/ Ortizek.
- C/ Osorok.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

**TXOMIN LARRAÑAGA**rendako izan da 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Txomini! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Fraiskozuri plazan eta pilota** / Galde debalde: **1-A, 2-C, 3-B.**



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Torreberatxa ardo beltza

Nafarroako izendapena, 0,75 litro.

**1,19 €**

199 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK  
MOKETA ETA SINTASOLA  
IZTUKU ESPONJATUA  
PAPER PINTATUAK  
HAREA ZORROTADA  
IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
FAXA: 943 76 09 32



Irala 3. Tf. 943 76 12 35  
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37  
BERGARA



POL-POL  
Taberna

943 76 07 78. Bergara



BERGARA  
**Nerea Odriozola**  
24an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Maialen eta gurasoak.



BERGARA  
**Maite Nuñez**  
27an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Nerea.



BERGARA  
**Nerea Urresti**  
25ean 7 urte.  
Zorionak Nerea, gure  
etxeko lorea!



ELGETA  
**Jone Izagirre**  
27an 6 urte. Zorionak!  
Gema, Josu, Kepa, Txomin  
eta eskolako lagunak.



BERGARA  
**Amaia Ruiz**  
25ean 2 urte.  
Urte askotarako!  
Olatz eta Ander.



BERGARA  
**Asier Garcia**  
25ean 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Julen Muruamendiaraz**  
24an 8. Zorionak! Etxe-  
koak; bereziki, Maitane.



BERGARA  
**Enara Chimeno**  
23an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Ane Motoso**  
26an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Amaia eta gurasoak.



BERGARA  
**Maitane Aranzabal**  
26an 5 urte. Urte  
askotarako! Aitona-  
amona eta etxekoak.



ELGETA  
**Leire Sangroniz**  
26an 10 urte.  
Urte askotarako!  
Eskolako lagunak.



ELGETA  
**Ainara Sangroniz**  
26an 10 urte.  
Urte askotarako!  
Eskolako lagunak.



BERGARA  
**Irma Rodríguez**  
27an 13 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Lorena Elexpuru**  
26an 4 urte. Zorionak!  
Aittitta-amama, osaba  
eta izeba.



ANTZUOLA  
**Endika Mata**  
21ean urtebetetzea.  
Zorionak eta muxu handi  
bat! Gurasoak eta Alaitz.



BERGARA  
**Peio Otaño**  
29an 7 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.

BABESLEA



**GABONETAKO  
OPARI ONENAK!**

- Reflex kamerak
- Tripodeak
- Compact kamerak
- Kamera digitalak
- Kamera-zorroak

Barrenkalea 35  
Tel. eta faxa:  
943 76 58 05

**Adi!** Hurrengo zenbakian, azaroaren 30etik abenduaren 6ra bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu. Argazkiak, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

**Zorionak, antzuolarrok!**

Antzuolan zuen zorion agurretako argazkiak\* eta datuak emateko liburutegira jo dezakezue:  
**astelehenero, 17:00etatik 18:00etara.**

**MUSU-TRUK!**

**Zorionak, elgetarrok!**

Elgetan zuen zorion agurretako argazkiak\* eta datuak emateko Erosle-Baltxungora jo dezakezue:  
**zapataro, 09:00etatik 13:00etara.**

**MUSU-TRUK!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. / Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. / Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, BERRIGARA-n agertu ondoren. / Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

**KUTXA-REAL SOCIEDAD TXARTELAK  
Oso Realzaleentzat bakarrik**



Zu bezalako pertsonentzat, Reala oso modu berezian sentitzen dutenentzat, pentsatuak daude **Kutxa-Real Sociedad Maestro eta MasterCard** txartel berriak. Txartel hauek erabiltzeagatik, prestazio finantzario guztiez gainera, opariak ere lortu ahal izango dituzu. Anoetako partiduetarako sarreraren zozketan parte hartu, eta bi pertsonarentzako bidaia baten zozketan ere bai,

gure taldea bere desplazamenduetako batean laguntzeko.

Gainera, 2002ko otsailaren 1a baino lehen eskatu eta erabiltzen baduzu, **CD zoragarri bat, Txuri-Urdin abestiaren 5 bertsio berezi biltzen dituen**a, eramango duzu opari.



Eskatu kutxaren bulegoetan edo [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean.





UNITED COLORS  
OF BENETTON.

Maalako Errabala, 13 • ARRASATE

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 23a / 91. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

## Anelkarren festan batutako diruarekin Brasilera ur zisterna bat erosiko dute

AINTZANE IRIZAR

Abenduaren 1ean, hurrengo zapatuan, izango da festa hori. Arratsaldeko 16:30ean hasita, hainbat ekitaldi egongo dira Zurrategi plazan. Aurtengo honetan, Brasileko Canudos herrirako ur zisterna bat erosteko erabiliko dute egun horretan batutako dirua.

Arratsaldeko 16:30ean hasiko dute udazkeneko egin ohi duten festa hau Anelkarreko kideek. Oraingoan, egun horretan batutako diruarekin, Brasilerara bidaltzeko ur zisterna bat erostea da euren helburua. Brasileko Canudos herrirako biztanleek presa eta urtegia egin nahi dituzte, hango ohiko lehorteei aurre egiteko. Beste gauza batzuen artean, ura biltzeko zisterna baten beharrea daude, eta horixe da aurtengoan Anelkarrek lortu nahi duena, urarendako zisterna bat erostea, alegia, abenduaren leku festan batzen duten diruarekin.

Hainbat ekitaldi egongo dira egun horretan. Alde batetik, jaialdi guztietan egin ohi duten moduan, bidezko merkataritzako produktuak salduko dituzte, Arra-



Herritarrek oso ondo erantzun zuten udaberriko festan, Anelkarreko kideen esanetan.

sateko Harreman dendatik ekarritako produktuak, hain zuzen ere. Bestalde, herritar batzuk borondatez egingo dituzten txokolatateak eta pastak dastatzeko

aukera ere egongo da. Azkenik, eta ur zisterna erosteko dirua batzeko, ur zisterna bat jarriko dute. Donatiboa zisterna horretan saskiratu beharko da. Ekitaldi

berezi bat ere izango dugu, Barzelonatik etorriko diren "mimoën" aktuaioa, hain zuzen ere. Eta horrekin lotuta, baita sorpresa txiki bat ere.

*Senegalera generadorea bidali zuten, maiatzeko festan batutako diruarekin*

**SENEGALERA GENERADOREA BIDALI ZUTEN**  
Aurtengo maiatzean egindako festan, Senegalera bidaltzeko generadore bat erostea zuten helburu, eta lortu zuten. 500.000 pezeta baino gehiago batu zuten guztira, eta ura ateratzeko eta argindarra sortzeko generadore bat erosi zuten Senegalera Casamance herrirako. Generadoreaz gain, ospitalerako materiala ere bidali zuten. Gogoratu behar dugu, Casamance lehenengoan herririk bat dela. Datorren udaberriko festa ere Casamancerako dirua batzeko izango da.

Urteko bigarren festa honen atarian, datu horien berri eman nahi izan dute Anelkarrekoek, eta herritar guztiei eskerrak eman, era honetako diru eskaerak egingen direnean oso erantzun ona ematen dutelako.

**HERRITARREN HITZA / Jose Mari Ugalde • Erretiratuaren elkartearen presidentea**

## Erretiratu edo helduen pentsamoldeak

Jakin badakigu, gizarteko talde batek, gu, erleen hizkuntzan zanganoak garelako uste duela, baina hori ez dela horrela adierazi nahi dugu. Behar duguna da gizarteak gu aintzakotzat hartzea; oraingo izakeran partaide izan nahi dugu, eta ez jataile.

Gu ez gara atzerakoiak, bakarrik abantaila neurrikoa izan dadin gure ahaleginak egiteko ados gaude.

Adibide bat jarriko dut orain. Oraindik urte asko ez dela, burnibidean trenez ibiltzen ginen eskualde honetan; tren horrek bazuen lanpostu bat, xumea baina garrantzi-

tsua; gaztelera "guardafreno" esaten zitzaion.

Denok dakigun bezala, malda eta bihurtzea besterik ez daukagu hemen. "Guardafreno"aren zeregina zen malde-tan trenak ez zezala abiadura handiegia hartu, eta bihurtzean ez zedila zuzen joan. Horixe zaintzea zen bere eginbeharra. Beharbada, guk ere horrelako zerbait egin genezake.

Bestalde, azken boladan,



**"Oraingo izakeran partaide izan nahi dugu, eta ez jataile"**

gure zaintzaile eta zuzendari diren agintariek, badirudi oso ondo ipini nahi gaituztela, gutxienez, Europako mailara hurbilduz. Hori oso pozgarria ez dela ez dago esaterik.

Laguntza mardul horiek emateko zer eskaintzen dugun guk esaten digute; pentsamoldeak, jokabideak, aldatu behar ditugula, hau da, tresna berriak erabiltzen ikasi, elkarlaguntzen duguna elkarbanatzen eta abar.

Eskaera horiek pixka bat kezkatu egiten gaituzte, eta emateko ezer ez dugula ateratzen zaigu konturatu ere egin gabe. Baina ez da horrela; gure barrena ondo aztertuz, konturatu gara gizartearen eskaintzeko gauzak baditugula, eta batik bat, gure adinekoei.

Lehen aipatutako laguntza horiek kezkatu egiten naute, bestalde, ez ote den gertatuko esatera zahar batek dioena, "urrutiko intxaurrak ehun, eta hurbilera joandakoan lau". Hori ez gertatzeko, banatu dezagun daukaguna, eta Eguberrietan intxaur-saltsa jango dugu.

## LABUR

### Gaztainerre jana plazan zapatu arratsaldean

Urtero moduan, aurten ere gaztainerre jana egingo dute herriko plazan. Bihar, zapatua, izango da hori, arratsaldeko 18:00etan hasita. Gaztainerreak eta sagardoa izango dira nagusi, baina gaztetxoentzako bestelako freskagarriak ere egongo dira. 100 pezetaren truke, nahi adina sagardo edan eta gaztainerreak jateko aukera egongo da. Aipatu beharra dago herriko erretiratuak arduratuko direla gaztainerre erretzeaz.

## TELEFONO JAKINGARRIAK

### OSASUNA/LARRIALDIK

DYA .....	943 78 71 57
Gurutze Gorria .....	943 76 55 76
Medikua .....	943 76 62 23
Praktikantea .....	943 76 63 80
Udaltzaingoa .....	943 76 62 46
Ertzaintza .....	943 76 53 40

### UDALA

Udaletxea .....	943 76 62 46
Liburutegia .....	943 76 60 65

### BESTELAKOAK

Idolaz .....	943 78 60 12
Herri ikastetxea .....	943 76 62 68
Jubilatuena elkartea .....	943 76 62 71
Abadetxea .....	943 76 64 16
Anelkar (Kontxi) .....	943 78 70 65
Taxiak:	
Antonio Fernández .....	669 15 65 40
Jesus M. Fernández .....	607 31 85 60

## MEZAK

### ANTZUOLAKO PARROKIA

Lanegun eta zapatueta: 19:30  
Domeka eta jaiegunetan: 09:00, 11:30

### UZARRAGAKO PARROKIA

Domeka eta jaiegunetan: 10:00

## OHARRAK

### KARAKATETIK ANTZUOLARA

Abenduaren 2rako antolatuta dute Arrolakoek irteera hori. Goizeko 8:00etan irtengo dira Antzuolako plazatik Karakate aldera. Handik oinez abiatuko dira Antzuolaraino. Joan nahi duenak, datorren martitzenean, azaroak 27, eman beharko du izena Arrolaren egoitzan, 19:00etatik 20:00etara.

### GAZTETXOEN IRITZIAREN ZAIN

Duela aste batzuk jakinarazi genizuen moduan, Gaztetxokoaren inguruan herriko gaztetxoek duten iritzia jakin nahi dute Udalak eta gurasoek, Gaztetxokoaren etorkizuna erabaki ahal izateko. Horretarako, inkesta bat bidali zieten herriko gaztetxoei. Inkesta hori bete eta udaletxera eramanez dezetela eskatu zieten. Gogoratu ezazue, datorren eguaztenean, azaroaren 28an, hain zuzen ere, amaituko dela erantzunak emateko epea.

## BASERRIZBASERRI/ Ibarre



**IBARRETARRA, MEXIKON MERKATARI** 1391an Johan Peres Ybarrelucea bizi zen bertan. 1732an Ibarre baserriko Francisco Ignacio de Iraeta y Ibarra Mexikora joan zen 12 urterekin. Han, merkataritza inportante baten alabarekin ezkondu, eta Mexikoko merkataritza bide guztiak bereganatu zituen. Aipatzekoa da Errukizko Amaren aldare nagusia berak ordaindu zuela. Bera izan daiteke une hartan inguruko herrietatik Ameriketara joaten zen diasporaren eredu ikusgarriena. 1995ean zeharo berriro zuten Ibarre; egun nekazal turismoko etxea da. Eusebio Gabilondo eta Pilar Belastegi bizi dira hantxe, Iñaki eta Goizane seme-alabekin batera. /AINTZANE IRIZAR /ITURRIA: IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZEN 'ANTZUOLAKO BASERRIAK ETA ERROTAK'

## BOTEPRONTOAN/ Belen Azkarate · Dantzaria

*“Nik betidanik, txiki-txikittatik, bizi izan dot dantzia; nere parte dala esango nuke”*

**O**so folklorikoa ei da; horixe esan digu. Txikitatik da dantzaria, eta oraindik ere Oinarin dantza taldean dabil. 28 urte dauka eta Alzarten ari da lanean.

### Zer ekarri dizu zuri dantzak?

Ni oso folklorikoa naiz, eta asko gustatzen jat dantzia be, beste gauza batzuen artian. Gaiñera, jende asko ezagutzen dozu.

### Dantzaria izatearen alde onena?

Ez dakit; nik betidanik bizi izan dot dantzia, txiki-txikittatik; nere parte dala esango neuke.

### Eta txarrena?

Plazara irtetzerakuan pasatzen ditudun nerbixuak.

### Zein da “oin arinak” edukitzezeko sekretua?

Neuk be nahiko nuke jakitzia. Nik uste dot gorputz guztiko mobimentua eta erritmua dirala inportantiak dantzan. Gaiñera, dantzarako erreztasuna berezku be badala uste dot. **Ze musika mota gustatzen zaizu?**

Danetik pixka bat, baiña hemengo bertako musikia gehixenbat. Hori bai, bakalaua etxat bape gustatzen, ez dot aguantatzen.

### Antzuolan zer falta da?



Lehen auzo-giro haundixagua zeguan, eta horrekin batera, gauzak egitteko gogo gehixago.

### Eta zer dago soberan?

Soberan ez daude, baina kanpotik horrenbeste jende etortziak bildur pixka bat ematen dost; lo egitteko herri



bat bihurtuko ete dan-edo... **Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?** Asteburutan, jai daukatenian, juerga egittia; bestela, irakurtzia asko gustatzen jat. **Beti egin nahi izan duzun zerbait, baina oraindik lortu ez duzuna?** Asko gustatzen jat bihurtzia; gehixago bihurtzia nahiko nuke, baiña poliki-poliki banoia egitten nahi ditudun bihurtzia. **Zelan definituko zenuke zeure burua?** Nik uste dot lotsatixa naizela; lagunek ezetz esaten doste. **Besteengan, zer baloratzen duzu?** Maliziarik ez edukitzia; edozer gauza ondo edo gaizki egin, borondate onarekin egitea.



Bidea eginez

Tallerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78  
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

# Itzar

LIBURUDENDA  
ESTANKOA

Kalebarren 1 ANTZUOLA  
Tf. 943 76 60 62

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 201eko azaroaren 23a / 76. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

## Umore puntua ekarriko du La Garbo S.A. antzerki lanak

OXEL EROSTARBE

Gaur, gaueko 22:30ean, La Garbo S.A. Markeliñeren antzerki lana ikusteko aukera izango dugu Espaloia Aretoan. Kultura Batzordeak antolatutako emanaldia adin guztietako jendearentzat gomendatuta dago, eta aurkeztu zutenean zenbait sari jasotakoa da.

Bi kale-garbitzaileren bizipenak dira, gaur gauean Markeliñek taularatuko duen antzerki lanaren muina. Hasieran, umore puntua dauka ikuskizunak, bukararako ordea istorio tragiko bihurtuko da. La Garbo S.A. tragikomedian erakoa dela adierazi digu Jon Kepa Zumaldek, Markeliñeko partaideak, eta antzerki lan honetan soinu eta argiatako teknikaria denak.

Badira 16 urte, lau lagunek Markeliñe Antzerki Taldea sortu zutela. Hasieran hobby bezala hartu arren, entsegu eta antzerki lanak ikusi eta hauetan parte hartzeak, profesionalki horretan aritzera eraman zuen lagun taldea. Markeliñeren lehen lana, Mundo fantastico delakoa, hortik etorri zen. Jende hartean lan hark izandako harrera ikusita, antzerki munduan sartu ziren gogo handiz. Hasierako taldea lau lagunek osatzen bazuten ere, taldea handituz joan da, eta hamaika lagun dabilta gaur egun Markeliñeren antzerki lanak aurrera atera nahian.

Gaur egun hamalagarren lana kalean daukate. Urte hauetan antzerki mota desberdinak landu dituzte, bai kale antzerkia, bai haur eta familiarentzako antzerkiak, baita areto barnekoak ere. La Garbo S.A. edo Kale Gorrian era honetakoa da.

Markeliñeren antzerkia egiteko era nahiko berezia da. Beraien antzerki lanetan ez dute testurik erabiltzen. Irudien bidez adierazten dute nahi dutena. Iru-di horiek babesteko eta bizitasun handiagoa izan dezaten, musika, argi eta efektu berezietan janzten dituzte. Markeliñekoek, esan nahi dutenari garrantzia ematen diote, baina baita esateko moduari ere.



MARKELIÑE

Iñaki Egiluz eta Javier Renobales dira kale-garbitzailearena egiten duten bi antzezleak.

**SARI UGARI JASOTAKO ANTZERKI LANA**  
Kultura batzordeak antolatu duen ikuskizunak sari ugari jaso zituen aurkeztu zutenean. Euskadiko

Antzerki Jaialdian ikusleen eta kritikaren saria jaso zuen, eta Denboraldiko antzerki lan onenaren Arriola Saria ere jaso zuen.

Herrian antzerkia ikusteko aukera paregabea dugu gaurkoan. Askotan izaten ez denez, aprobetxatu beharko.



**JON KEPA ZUMALDE /MARKELIÑE ANTZERKI TALDEKOA**

*"Gure antzerki lanen meritua, hitzik gabe elkarrizketak sortzen ditugula da"*

**Zer adierazi nahi izan duzue lan honekin?**

Antzerki lan berriak pentsatzen hasten garenean, kezkatzen gaituzten gaiak aukeratzen ditugu sarritan. Lan honetan kezkatzen gaituena, lanaren galtze arriskuak sortzen dituen egoerak dira. Ohitu garen betiko lana kolokan ikusteak, zer sortu dezakeen adierazi nahi izan dugu.

**Zer motako antzerkia da**

**La Garbo S.A.?**

Lan hau tragikomikoa dela esango nuke. Badaude barreak eta algarak egiteko uneak, baina istorioak oinarri garrantzitsu eta tristeak dauka.

**Zuen antzerki lanetan ez duzue hitzik erabiltzen. Ez da erraza izango, hitzik egin gabe komunikatzea.**

Askotan, esaldiak elkarrizketa murriztu egiten du. Esan duzuna hor dago beti, bai-

na keinuen bidez eta begiraden bidez, sujerentzia modura adierazten duzuna, ikusleak barneratu egin behar du, gero interpretatzeko. Hasiera batean antzerki lana arreta gehiagorekin ikusi behar dela dirudien arren, azkenean hitzik gabeko elkarrizketa sortzen da aktore eta ikusleen artean. Deskripzio handiko gauzak azaldu ezin diren arren, hitzik gabe gauza asko esan daitezke.

### LABUR

#### Gaur egingo du debuta Ubera II.ak DV txapelketan

Gaur, gaueko 21:30ean DV txapelketan debuta egingo dute Xabier Ubera elgetarrak eta Haritz Laskurain plazentziarrak. Ez da partida erraza izango, Amerika eta Atutxa aurkari gogorrak izango direlako.

Lehenengo jubenilen partida izango da. Bertan, Berasaluze eta Pradok, Saez eta Rico izango dituzte aurkari.

Iaz Martinez de Eulaterkin finala galdu zuen Xabierrek. Aurten txapela irabazteko faboritoen artean dago.

#### Elgeta trikitilariari buruzko liburu-CDa argitaratzeaz

Euskal Herriko Trikitilari Elkarteak, Soinuaren Liburutegia sailaren barruan, Elgeta trikitilariari buruzko liburu argitaratuko du Durangoko Azokarako. *Elgeta sasiaren sustraia* izenburupean Koldo Izagirrek idatzi duen liburuarekin batera, Elgetaren grabazioa oparitu dute. Elgeta trikitilariaren grabazioa, aurretik argitaragabea da. Hil baino denbora gutxi lehenago egin zuten Donostian eta bera entzun daitekeen grabazio bakarra da.

#### Defentsa pertsonaleko ikastaroa

Gaztetxeak antolatu duen defentsa pertsonaleko ikastaroan izena emateko azken eguna abenduaren 6a izango da. Ikastaroan 12 urtetik gorako neska-mutilek parte har dezakete, eta ez dago adin mugarik.

Izena liburutegian edo gaztetxean eman daiteke, edo hango erantzungailura deituta (943 78 90 43). Patxi Bouzas-ek emango du ikastaroa. Abenduaren 8an hasiko da, eta ordutegia izena ematen dutenekin zehaztuko da.

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIXAK**

Medikua	943 76 81 93
DYA	943 46 46 22
Gurutze Gorrixa	943 22 22 22
Odol emailiak	943 76 16 24
Hies Ekimena	943 79 26 99
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaillak	943 78 28 00

**GARRAIUAK**

Taxiak	943 79 12 22
Pesa	902 10 12 10

**UDALA**

Buleguak	943 76 80 22
Faxa	943 76 82 89
Kiroldegixa	943 76 82 84
Eskola	943 76 82 26

**BESTELAKUAK**

Parrokixia	943 76 81 45
San Andres Parrokixia	943 20 11 51
Farmazia	943 78 81 50
Goibeko K.J.E.	943 78 90 85
Goibekokale (Goienkaria)	943 79 92 71
Gaztetxia	943 78 90 43
Guraso Elkartia	943 76 82 26
Ozkarbi K.J.E.	943 76 81 49
Intxorta K.J.E.	943 76 81 46
Ozkarbi Pilota Taldea	943 76 81 49

**MEZAK**

Zapatuetan	iluntzeko 19:30etan
Domekatan	eguerdik 12:00etan

**OHARRAK**

**ERRETRATU ZAHARRAK**

Hillekarixan egiten giñuan moduan, erretratu zaharrran atalakin jarraituko dogu aurrerantzian be. Atal honetan etxian daukazuen erretratuak erakustia gura izan ezkerro jarri gurekin harremanetan. Honetarako 943 76 92 71 telefonora deitu zeinkie edo bestela liburutegira edo GOIBEKOKALEko bulegura eruan. Hillero, Elgetako erretratu zahar bat argitaratuko dogu.

**ZORION-AGURRAK**

Etxeko norbaiten edo lagun baten eguna dala eta, zerbait berezixa egin nahi izan ezkerro, GOIBEKOKALEk, zorion-agurren atal honetarako aukeria emoten dotsue. Zoriondu nahi dozuena erretratua, Mari Asun Agirrerren dendara eruatia besterik ez daukazue. Ez ahaztu, eguna izan baiño hamar egun inguru lehenago argazkixa gure eskuetan egotia komeni dala.

**AIPAGARRI**

**Eneko Maguregi saritu dute Eibarko Mikologia lehiaketan**

O.E.

Udazkena perretxiko garaia da eta mikologia jardunaldiak izan ditugu inguruko herrietan. Eibarko Mikologia Jardunaldietako lehiaketan Eneko Magurek aurkezpen onenaren saria jaso zuen. Bestalde, Elgetan antolatutako lehiaketan, lau talde ibili ziren.

Eneko Maguregik aurkezpen onenaren saria jaso zuen Eibarren izandako Mikologia Jardunaldietan. Perretxiko bilatzeko egun onena izan ez arren, mota desberdinetako 18 perretxiko aurkitu zituen Enekok.

Batutako perretxikoak txukun-txukun ipinita aurkeztu zituen lehiaketara, eta epaileek berari eman zioten saria.

**ELGETAN ERE IZAN ZEN LEHIAKETA**

Elgetan Maya taldekoek antolatutako perretxiko lehiaketan, Ainara Arantzeta, Nora Ugarteburu, Eneritz Larrea eta Leire Azkarragaurizar izan ziren irabazleak.

Lehiaketa honetan, lau taldeetan hartu behar zen parte.



Enekok Intxortan eta Karabitxa inguruan bilatu zituen lehiaketarako perretxikoak.

Bigarrenak, Maialen Arantzeta, Janire Lazkano, Hiart Bolinaga eta Ane Elorza izan ziren, eta hirugarrenak, Pello Bilbao, Kepa

De Vega, Iñaki Beristain eta Adrian Gorostiza. Eneko Maguregi laugarren lekuan geratu zen lehiaketa honetan.

**HERRITARRENHITZA/ Beatriz Zabalondo · Itzultzailea**

*Etxeko txikia handi egin zaigu*

**H**asi dira telebista kate guztiak motorrak berotzen Gabonetarako.

Badatoz pixkana-pixkana aurtengo iragarki berriak; iazko jostailuen klonen iragarriak; urtero, gastatzeko grina pizten diguten klase guztietako huskerienak. Merke zein garesti izan, garestitxo beti.

Etxeko txikia, erne-erne pantaila aurrean.

Eskolan eta lagunartean atera da gaia: "Nik halakoa eskatuko diet Erregeei". "Niri iaz ekarri zidaten hori, aurtan beste hura". Eta abar.

Koadrilako "biboak" barre

egingo du, akaso. Iaz espabilatu zen hura, eta handikerietan hasi zitzaizen inozoenek: "Erregeak gurasoak dituk!"

Entzun bai, baina komeni ez denean gorreria latza izaten dugu denok; umetan ikasten da hori, antza.

Etxeko txikiak, ondo gogoan lagunak esandakoa, etxera eramanez kontua iaz: "Ama, aita, Erregeak nortzuk dira?"



"Goxatutako malcoetan utzi du haurtzaroa txikiak"

Gurasoentzat estutasuna. Adinean hortxe-hortxe, bere gelako batzuk jakinean zeuden, beste batzuk ez...

Galdera moduko bat haurrari itzuli, eta erantzuna nolakoa, umeari garaia iritsi zitzaion ala ez, hortik jakingo zutela pentsatu zuten gurasoek: "Ama,

aita, Urliak esan digu zuek zaretela Erregeak. Baina nik ez diot sinistu. Gainera, gure

etxera urtero etortzen dira Errege Majoak, baietz?"

Aurtan erne baino erneago dago telebista aurrean etxeko txikia. Eta urtebete zaharrago hura ere! Auskalo zein burutazioen ondoren, afal orduan, bota du mahaian: "Aita, ama, Erregeak gurasoak dira, ezta? Iaz gure etxera etorri zirenean, errege beltza ezagutu nuen: osaba zen. Baietz?"

Aulkian uzkurto, kokotsa lepoan ezkutatu eta isil-isilik negar-anpultutan lehertu da etxeko txiki-handia. Aita-amek goxatutako malcoetan utzi du haurtzaroa.

**LABUR**

**Udalak zebra bide altxatuak jartzeko asmoa dauka**

Elgetako guraso talde batek idatzia aurkeztu du udaletxean, oinezkoentzako pasabideetan konponketa batzuk egitea proposatuz.

Batetik, Kultura Etxe barrutik kiroldegirako oinezkoentzako pasabidea egitea proposatu dute. Hau zaila da Udaleko teknikarien esanetan, alde batetik eraikina Diputazioarena delako, eta bertan egin beharreko konponketak handiak direlako. Kontuan izan behar dugu udaletzeko sarreraren beste aldean berogailuaren instalazioak daudela.

Autoek abiadura jaisteko seinaleak jartzea ere proposatu dute. Udalak lehenagotik zeukan pentsatuta Diputazioari zebra bideak altxatzeko eskatzea. Dagoeneko aztertu dute gaia teknikariek. Bergarara bidean, Ostatu aurrean eta Espaloiko eskaileretan, Eibarrera bidean eliza atzealdean, Elorriora bidean hiltegi zaharra zegoen lekuaren parean, eta Arrasatera bidean Salbadorreko azken etxeren parean zebra bide altxatuak jartzeko asmoa daukate.

**Uriburu UTEk saltzen du:**  
Domingo Iturbe kalean  
**ETXABE KOMERTZIALA**  
Etxe berrien azpian  
**PREZIO INTERESGARRIAK**  
943 76 11 23  
670 781 759

**GOIO SARASUA**  
Igeltzeritza lanak  
Teilatuak  
Sukaldeak  
Etxaurreak  
Komunak  
Otzango Behekoa Baserria  
ELGETA  
Tel: 943 86 01 56

  
Jesus Mari Montiel  
**ITURGINTZA**  
**ETA BEROGAILUAK**  
Artekale 3  
Mo: 656783299 Eibar  
Tel: 943 70 07 19  
**KONPONKETAK**  
**SUKALDE**  
**ETA BAINUGELETAN**

**Aintzane denda**  
  
*zugandik gertu, behar duzun beste*  
Domingo Iturbe 4, ELGETA  
Tel: 943 768297

## ERRETRATUZAHARRA

Cerrajerako  
langileak  
Sondikan

**C**errajerako langileek 1950eko hamarkadaren erdialdean, San Markos eguna ospatzeko, Sondikara egindako irteerako erretratua duzue oraingo astekoa. Apirilaren 25a ailegatzen zen bakoitzean, Cerrajerako bulegarietara irteera egiteko ohitura zeukaten. 1955. urtearen inguruan, Sondikako aireportuari bisita egin ondoren, Artxandan bazkaldu ei zuten. Honako hauek dira argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Vicente Garitano, Serafin Linazisoro, Rufino Garitano, Juan Aiausti, Vicente Arantzabal, Pedro Aiausti, Javier Moñux, Gilberto Amasorrain, Mari Tere Peña, Felix Iñarra, Maria Luisa Peña, Luz Tellearte, Beatriz Lazkano, Juan Mari Azpiazu, Arantxa Aiausti, Milagros Durana, Mari Tere Alzelai, Maria Angeles De la Granja, Rosarito Mendibil, Lide Oregi, Begoña Irastortza, Mari Karmen Etxeberria, Ignacio Etxeberria, Maria Asuncion Gallastegi, Jose Mari Luarizaristi, Juan Jose Hernando eta Domingo Frias.  
Makurtuta: Eustaquio Calvo,



Francisco Azpiazu, Tomas Antia, Martin Arana, Fernando Azkarate, Mari Karmen Oiarbide, Juan Azkarate, Victoriano Gallastegi, Miren Retegi, Dionisio Olabarria, Carmelo Mendibil eta Eusebio Larrañaga.

Argazkia: Fernando Azkarate.

## ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zator BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Irizar kalearen  
lehena eta  
oraina

**B**ergarak izan duen hazkundearen adierazgarri, hemen duzue Irizar kaleko pare bat argazki. Ezkerrekoan kalea ia etxe barik ikus dezakezue, atzean Irizar Jauregia antzematen den arren. 1960ko hamarkadaren erdialde aldera etxeak eraikitzen hasi ziren Irizarren, eta herritar ugari bizi da han gaur egun. Berrogei urtean gauzak erabat aldatu dira.



± 1960 Udal Agiritegiaren argazkian (J. Igartzabalek emandakoa), Mariaren Lagundiko ikasleak ikus ditzakezue Irizar kalean.



2001 Irizar kalea erabat aldatu da 1960ko hamarkadatik hona. Etxe mordoak eraiki zituzten han, eta herriko gune bizienetakoa bilakatu da.

**M**  
**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25  
BERGARA



**Zumelaga**  
JATETXEA

59 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



**Manufacturas  
LARRAÑAGA**

•Lan-babeserako artikulua  
•Seinaleztapena  
•Jantziak

Leizeaga 1. BERGARA  
Tf. / faxa 943 76 59 53.

**Zuri Beltz  
margoak**

Barnealde eta kanpoaldean  
erreforma

Pintura zerbitzu osoa  
Moketak

943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59  
Bergara



Era guztietako  
azulejoak eta zoladurak



Hidromasaje  
bainerak eta kabinak



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa, 1. OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22, Faxa: 943 78 15 51



Bainu altzariak  
eta osagarriak



GOITIK BEHERA  
BERRITUTA! ZATOZI!

Astean zehar  
eguneko menua

Asteburuetan  
menu bereziak eta  
sagardotegiko menua

Pintxoak,  
ogitartekoak eta  
errazioak



BOLATOKI  
taberna-jatetxea

Artekale 2, Elgeta. 943 76 82 84

# JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara. Diseinua, kalitate/prezio erlazio bikaina eta saldu osteko zerbitzu ezin hobea eskaintzen dizugu...

Eta zeramikako azken berrikuntzak.

Jakina, zurekin pentsatzen.

**FAGOR** 

Sukaldeko altzariak



JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.  
Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.